



Oroimenetik, festa!

Faxismoaren biktimak eta Palestina gogoan izanda hasi ziren Altsasuko festak.
Denetarikoko ekitaldiak antolatu dira / 10-13

Sakanako Energia Berriztagarrien Kooperatiba sortu da, energia komunitateen abiapuntua / 2-4

Altsasuk erabakiko du CaixaBank Mastersean Zabaletak edo Martijak egiten duen aurrera / 16

Gaur hasiko da Bardoak taldekako bertsolari txapelketa; Olaztin eta Irurtzunen saioak izanen dira / 22

Altsasun eraikiko den frontoi txikia estalpearen eta lokomotoraren artean egonen da / 9

Sakanako lehen areto futboleko kopa antolatu dute eta Altsasu F.S izan da garailea / 17

SINADURAK

	JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 5		AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ PLATAFORMA / 5
	JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 15		EKAIN ALEGRE GIL / 22



Ongi pasa festak!

Sakanaoptika
optikarretiketa • audiorretetiketa • kontaktuhilagailuak

San Juan kalea 40 (Altsasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM

"Proiektu egingarriak identifikatzen egon gara"

URKO, JON ETA ARKAITZ EBKREN SORRERAN PARTE HARTZAILEAK

Sakanako Energia Berriztagarrien Kooperatiba (EBK) sortzeko batzarra egin zen Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan asteazken arratsaldean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Kooperatiba hamahiru bazkidek abiarazi dute: bost sakandarrek eta zortzi udal eta enpresak. Behin EBK eratuta, proiektua ezagutarazteko aurkezpenak eginen dituzte sustatzaileek. Kooperatiba energiaren arloko herrietan proiektu zehatzak bulkatzeko tresna izanen da. Bertako bazkide herritarrek, tokiko erakundeak eta enpresak izan daitezke. Helburua da sortzen diren proiektuetan erabiltzaileak (sakandarrak, administrazioa eta enpresak) sustapenean txertatzea.

Udal batzuk bazkide dira eta orain udal gehiagok bat eginen dute. Sakanako Mankomunitateak berak kooperatibako kide izateko interesa azaldu du. Eta kontzejuek ere aukera dute. Kooperatibako kide egin nahi duenak edo informazioa jaso nahi duenak ebk@sakana.eus helbidera idatzi dezake.

EBKren sortzeko, aurreko ikasurtean parte hartze prozesu bat egin zen. Haietan parte hartu zuten hiru sakandarren iritzia jaso ditugu. Urko Agirre Gabirondo iturmendiarrak herritar

gisa parte hartu zuen, Jon Irigoien Fresneda Eseki enpresaren ordezkaria izan zen eta Arkaitz Errazkin Beltzak Etxarri Aranzako udal ordezkari gisa parte hartu zuen bileretan.

Zer da energia komunitate bat?

Urko. Energia berriztagarriak bultzatzeko edo energia kontsumoa murrizteko ekintzak egiten dituen komunitate bat da. Hainbat eragilek osatzen dute. EBK-k lege izaera eman digu, kasu honetan kooperatiba bat sortu da eta, horrela, hainbat lege tramite egin daitezke. Horrek aukera ematen dizu, esaterako, energia kontsumo partekatua egiteko. Edo hainbat proiektu egiteko.

Jon. Komunitatea herritarren, udalen edo enpresen artean energia berriztagarriak banatzeko edo autokontsumitzeko modu bat da. Energia berriztagarria mota askotakoa izan daiteke: hidroelektrikoa, biomasa, fotovoltaikoa... Baita mugikortasuna ere. Energia kontsumoa murriztu eta energia burujabetza lortzeko bide polita da.

Arkaitz. Ohituta gaude energia enpresa handi batzuk saltzera,

eta haiek jarritako baldintzak onartzea besterik ez dugu. Energia komunitateak, nolabait, horri heldu nahi dio eta elkarte berak izan nahi du energia kudeatuko duena, energia sortzen, banatzen, energiaren erabilera egonkortzen, energia eredu desberdinak planteatzen... Aukera mordo bat dago. Eta aukera asko ematen dituenek, energia burujabetza esparru askotara iristeko aukera ematen du.

Zer onura ditu?

A. Lehendabizikoa, ekonomia. Energia sorreran, banaketan eta hor dauden enpresa handi horien guztien bitartekaritza kentzen duzu, eta energia prezio hobean eskuratu ahal duzu.

J. Energia bertan ekoiztu eta bertan kontsumitzen da. Horrek askatasun handia ematen digu, energia burujabetza. Eta fakturen zenbatekoa murriztea ere bada. Behar dugun energiaren %100 lortzea oso zaila da. Errazena energia fotovoltaikoa jartzea da. Bateria eta eguzki plaka batzuekin energiaren %60-80 artean lor daiteke. Pausoz pauso, lehenik etxeetarako energia ekoizten eta



"AZKEN BATEAN, HERRIAREN ARABERA, EGOKIENAK DIREN JARDUERAK AURRERA ERAMATEAN DATZA"
URKO AGIRRE GABIRONDO



"ORAIN PROIEKTUAK ATERA ETA MUGIMENDURA HERRITAR GEHIAGO BATZEA DA KONTUA"
JON IRIGOIEN FRESNEDA



"HAINBAT PROIEKTU ETA NOLABAITEKO KOOPERATIBA TXIKITXOAK SORTU AHALKO DIRA"
ARKAITZ ERRAZKIN

kontsumoak murrizten ari dira. Pisuetan jende asko bizi da. Energia sortu ezin dutenendako energia komunitatea bide bat izan daiteke. Orain mugikortasunean bilatu beharko da bidea. Baita enpresa eta udal eraikinetan ere. U. Bestalde, komunitate kontzeptua indartzea, herritarrek elkar ezagutzea dakar, komunitate sentimendua handituz. Eta, nire ustez, onura nagusia ingurumen inpaktuaren murrizketa da, edo, behintzat, arduratsuagoa den energia kontsumitzea.

A. Beste faktore oso garrantzitsua da erabakia elkartean baita gelditzen dela. Elkarte izanen da erabakiko duena zein proiektu eginen duten aurrera, non inbertitu nahi duen... Enpresa handiek etekinari begiratzen diote, eta etekin handiak aurrekusten dituzte proiektuak bulkatzen dituzte eta gainontzekoak ez. Hemen beste balore edo printzipio batzuetatik helden zaien energiari. Behar bada halako ekonomia onura handirik ez, baina herritarrendako garrantzitsuak izan daitezkeen proiektuak bulkatu daitezke. Hori ere garrantzitsua da.

Energiaren inguruko kezka nabari duzu zure inguruan?

J. Bai, badago. Etxeetako kontsumoetan orain prezioa jaitsi da eta ez da horrenbeste sumatzen. Baina gasaren prezioa igo zenean askok hots egin zuten zer egin zitekeen galdezka, kontsumoa murrizteko edo energia sortzeko. Mugikortasunari dagokionez, denok dakigu auto berrien prezioa zein den. Autoen arloan ez dago oso argi elektrikoa, bioerregaiak edo hidrogenoa, zer etorriko den. Batez ere kezka prezioengatik dago, bizitza garestitu delako. U. Oraindik kostatzen da. Asko nabaritu zen gasaren prezioa igo zutenean. Orduan, bai, jendeak pentsatzen du: "honekin zerbait egin beharko dut!" Gero eta kontzientzia handiagoa dago. Baina, oraindik, azken bulkada falta da. **Zergatik parte hartu duzu?**

A. Energiarena gai garrantzitsua da. Azkeneko urteetan gorabehera dezente izan dituzte energia-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Sakanako Energia Berriztagarrien Kooperatibaren eratze bileran parte hartu zutenak. SGA

ren prezioek. Azken urteetan energia burujabetzaren garrantziaren inguruko dezente konzientzia hartzea izan da. Eta energia komunitateen eredu horrek horri guztiari erantzun nahi dio. Oso proiektu garrantzitsua da, herritarrei laguntzeko eta herritarrek energia autonomian pausoak eman ahal izateko aukera paregabea da.

U. Energia ahalik eta garbiena kontsumitzeko eta energia kontsumoa murrizteko interesa beti izan dut. Interesgarria iruditu zitzaidan ibarrean bertan lantzea. Beti gure herriari begiratzen diogu, baina, egia da, energiaren arloa guztion ardura da. Hasi-ratik interesatu zitzaidan.

J. Enpresa txikia gara baina beti ikerketa eta garapeneko proiektuak egiten ari gara. Energia berriztagarriekin 2012an hasi ginen, eta, dirulaguntzekin, 2017an proiektuak gauzatzeko hasi. Proiektu guztietan zerbait ikasten da. Energia komunitatea sortzeko prozesuan parte hartzeraz geroz, gure esperientzia partekatzea eskaini genuen.

Onurak praktikan ikusi dituzue?

J. Sakanako proiektu politena Lizarragako da, turbina eta aurreneko panel fotovoltaikoak jarri ziren. Euskal Herrian proiektuak egin izan ditugu, eta martxan daude. Ez dira urte gutxitako proiektuak, luzerako ikuspegia izan behar da. Pazientzia pixka

bat behar da. Gainera, gizartearen parte hartze prozesua ez da erraza: herriari azaldu, jendeak ulertu dezala... Horretan espezializatutako enpresak badaude. Denon arteko lana da. Ez da udal edo enpresa batek bakarrik egin dezakeen lan bat.

U. Hainbat gauza izan daitezke. Normalean burura etortzen zaiguna da publiko den teilatzen batean eguzki plakak jartzea eta auzokideen artean argindarra partekatzea. Baina energiaren kudeaketa hobetzen lagunduko duten beste ekintza asko egin daitezke. Esaterako, murrizteko aukera bat izan daiteke fakturak irakurtzen ikastea. Edo autoak partekatzea. Herriaren arabera, egokienak diren jarduerak aurrera eramaten datza.

Kooperatibarekin energia komunitateak sortzeko lege egitura dugu?

J. Bai. Sakanarako zerbait sortzea onena zela ikusi genuen. Zalan-tza asko sortzen dira. Eta horiek argitzeko herri bakoitzak berea egiten badu zailagoa da. Sortzen den proiektu bakoitza burujabea izan da. Sakanako kooperatibaren bidez dauzkaten zalantzak edo beharrak argitzeko aukera gehiago izanen du. Hori da ideia. Gainera, Nafarroako Gobernuak teknikari pila jarri ditu herritarrek laguntzeko. Herritar mugimendu batek bakarrik eginda, udalarekin eta arloko enprekin loturarik ez badu, proiektua ez da aurrera ateratzen. Nafarroak

Irurtzun, aurreratuta

Kooperatibako kide izatea onartu du Irurtzongo Udalak. Hala ere, lana aurreratuta du aspaldi. Liburutegiko teilatuan dagoen instalazio fotovoltaikoak sortzen duen argindarra eraikinean bertan eta aldamenen dagoen udaletxean kontsumitzen da. Frontoian dagoen instalazio fotovoltaikoarekin elektrizitatez hornitzen dute pilotalekua, kiroldegia eta eskola. Musika eskolan berrikuntza lanak despiduta, teilatuan beste instalazio fotovoltaikoa jarri du udalak. Eraikin berean eta kultur etxean kontsumituko dute bertan sortzen den argindarra.

Unai Razkin Iriarte alkateak aurreratu duenez, "eskola publikoan eta musika eskolan udan ez dago jarduerarik eta elektrizitate soberakinak izanen ditugu. Orain aztertzen ari gara soberakin hori igerilekura nola bideratu, udan zabalik baitago". Alkateak aurreratu duenez, "heldu den urtean beste instalazio fotovoltaiko bat jarri nahi dugu. Ez dakigu kiroldegiko edo eskolako teilatuan jarriko dugun". Razkinek jakinarazi duenez, "handik sortutako elektrizitatea energia komunitate baterako izatea nahi dugu. Orain baldintzak eta bestelakoak aztertzen ari gara. Posible balitz, gustatuko litzazuke herritarrek edo merkatariek parte hartzea. Baina oraindik guztia ondu gabe dago".

apustu handia egin du legean eta prozesuan laguntzeko.

A. Kooperatibaren aterkipean hainbat proiektu eta nolabaiteko kooperatiba txikitxoak sortu ahalko dira lekuan-lekuan. Sakanakoa martxan jarriko dugu, eta Etxarri Aranazi dagokionez, asmoa da proiektu batzuk martxan jartzen laguntzea. Udalak bere gain hartzen duen papera, batez ere, hori da: laguntzaile, bulkatzaile. Berari ere bere ekonomia kontuak hobetzen laguntzen dioten heinean ere, udalak

ere ekonomia interesa izan dezake. Baina, batez ere, herritarrei lagunduko dieten proiektuak dira bulkatu behar direnak.

Sakanak energia komunitateak sortzeko aukerarik bada?

U. Egon daitezkeen proiektu egingarriak identifikatu ditugu. Lana aurreratu dugu.

J. Aukera pila dago. Aprobetxa daitezke enpresa pila baten teilatuetan, udal eraikinen teilatuetan, partikularren teilatuetan... Orain proiektuak lantzea falta da, eta kasu bakoitzerako proposamena

zehaztea. Herri bakoitzak bere kasua dauka. Proiektu bakoitza aztertu behar da. Horretan gaudela. Ikerketa eta garapen arloan gu *start up* batekin lanean ari gara, sor daitezkeen proiektuak, teknologiaren bitartez digitalizatzeko, adimendun energia komunitateak garatzeko. Horrela herritarren artean hobe hedatzeko, informazioa iristeko... Orain proiektuak atera eta mugimendura herritar gehiago batzea da kontua.

Zein energia komunitate identifikatu dituzue?

U. Iturmendin aspaldi lantzen hasi ziren bero-sarea. Aurre-proiektua egin zen, kale batzuk berri zirenean instalazioaren parte bat jarri zen. Iturmendi horrekin dabil, ea zertan den energia komunitatea, eta zer egin daitezkeen proiektu hori aurrera ateratzeko. Bestalde, Etxarri Aranazen eguzki plakak jartzeko trasteekin dabilta aspaldi.

A. Eskoletan jarriko dira. Sortzen den energiaren zati bat eskolan bertan kontsumituko da eta, gaitzuztekoa, udalaren beste eraikin batzuetako kontsumoak konpentsatzeko izanen da. Baina asmoa da horren zati bat energia komunitatearekin partekatzea. Horrela, herrian energia komunitatea bulkatu nahi dugu. Espero dut neguan proiekturen bat martxan izatea.

U. Oso aurreratuta dagoenez, hori eginen den aurrenetariko bat izanen da. Behar bada eguzki plaka instalazioak aurrera egiteko errazena dira. Momentuz, errazena joko genuke. Baina herritar gehiago bazkide egiten diren heinean haien esku geldituko da erabakitzea zein proiektu egin, edo zein den interesgarriena. Dinamika hori izanen da, aldatzen joanen da.

Kooperatiba eratuta, orain zer?

A. Herritarrek izanen dira zein proiektu aurrera eramanez dituzten erabakiko dutenak, hura kudeatuko dutenak. Hor udalak laguntzaile izan behar dute. Baina protagonismoa eta erabakiak herritarrek hartu behar litzuzkete. Udalak badauzka beste aukera batzuk, bera bere kabuz, energia azpiegitura batzuk sortzeko. Askotan herritarrek dira indibidualki halakorik egin ezin dutenak. Baina kooperatiban elkartuz halakoak egiteko aukera dute.

« AURREKO ORRIAN HASI DA

U. Egingarriak diren nahiko proiektu identifikatuta daude. Orain horiek lantzen hastea litzateke kontua. Eta, aurrera begira, beste proiektu batzuk identifikatzea. Baina hori baino garrantzitsuagoa da, lehenik, sakanarrak kooperatibara batzera animatzea. Bazkide asko beharko ditu aurrera egiteko. Herriar gehiago bazkide egiten diren heinean haien esku geldituko da erabakitzea zein proiektu egin, edo zein den interesgarriena. Orain dagoen lanik handiena jendea erakartzea da.

A. Lehena ateratzen den proiektua da energia komunitateek instalazio fotovoltaikoak bulkatzeten dituztela. Gainera, azkeneko urteetan hainbat erakunderen dirulaguntzak izan dira horretarako. Halako proiektu batzuk izanen dira protagonistak hasieran. Baina ez da aukera bakarra. Energia komunitate batek energia burujabetzaren ikuspegitik lan asko egin dezake. Askotan erabakirik garrantzitsuena da energia gastuaren inguruko hausnarketa, eta heziketa ematea. Hiritar bakoitzak zertan gastatzen du bere etxean, bere gauzetan energia? Nola? Nondik heldu da energia hori? Nola murriztu dezake bere faktura? Hori bestelako azpiegiturak muntatzen hasi gabe. Hori ere landu genuen, eta pentsatzen dut energia komunitatea ere horri helduko diola. Bileretan aipatu zen hirugarren gai bat izan zen elektrizitatea ez diren beste energia iturri batzuk ere landu daitezkeela. Esaterako, biomasa. Sakanan egurra dugu. Horren ingurukorik ez da gehiegi landu. Baina ideia hori ikusten da. Lehen esandakoa, energia komunitateak erabakiko du zer bide hartuko dituen. Aukerak eta lan esparruak badauzka.

J. EBK Sakana guztirako sortu da, baina herri bakoitzean proiektuak sortu ahala, proiektu bakoitzak bere burujabetza izanen du. Sakanako egitura sortu da hasieran dauden zalantza horiek guztiak denon artean argitzeko, denok bide bera jarraitzeko. Proiektuak sortzen diren heinean bakoitzak bere berezitasunak izanen ditu. Energia komunitateak aurrera eramatea lana da, oso zaila da herri bakoitzean zuzendaritza kontseilu bat sortzea. Horregatik, Sakanarako bat sortu genuen.

Zein da ideia?



Kooperatiba Sakanako Mankomunitatearen egoitzan sortu zuten. SGA

Argi-ilunak Arakilen

Poligono fotovoltaikoak Arakilen ezartzeko eskaera egin dute zenbait enpresek. Duela urte pasa aurkeztu zituzten egitasmoak udalean. Guztira elektrizitatea sortzeko hamar bat proiektu dira. Haien azalera bost eta hemezortzi hektarea bitartekoak lirarteke. Lurjabe pribatuen lur sailetan eta herri lurretan aurreikusiak dituzte enpresek poligono fotovoltaiko horiek. Esaterako, Urritzola eta Etxarren artean dagoen industrialdearen inguruan. Edo Itxasperi ermitaren inguruan, erdia Egiarretako herri lurretan eta beste erdia bi lurjaberan lurretan.

Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, enpresek udalari proiektuak egin ahal izateko hirigintza bateragarritasun izendapena eskatu diote. Olaberriak jakinarazi duenez, "udalak ezezkoa eman die". Olaberriak azaldu duenez, "udala enpresekin bildu da eta gure arrazoiak azaldu dizkiegu, eta ez dakigu aurrera segituko duten. Uda baino lehenagotik gabilta honekin eta nahiko geldi dago gaia". Aitor duenez, "halako enpresekin presioa badaukagu".

Alkateak argudiatu duenez, "ez zaigu iruditzen horrelako proiektu bat nekazaritzako produkzio lurretan egon daitekeenik. Lehen sektorean oso zaila da lurra izatea. Eta ez ditugu halako proiektuetarako utzi behar". Gaineratu duenez, "halako proiektuak non egin daitezkeen guk markatu nahi dugu. Orain enpresek erabaki beharko dute aurrera egin edo ez". Olaberriak azpimarratu duenez, "helburua izan dadila energia bertan kontsumitzea. Eta ez energiarekin eta lurrekin negoziola eitea. Proiektu guztiek helburu bera dute: produkzio lurra hartu, plakak jarri eta elektrizitatea zuzenean sarera eraman. Guk energia hori ez genuke inolaz ere ikusiko". Olaberriak zehaztu duenez, "guk beste lehentasun batzuk dauzkagu. Sakanako energia berriztagarrien kooperatiba sortu berri da eta hori lehenetsi behar dugu". Alkateak jakinarazi duenez, "Arakilen energia sortzeko proiektu polit bat dago: Lacturalek mindarekin energia sortuko du. Beraiek burujabe izanen dira eta, asmoa da, Etxeberriko kale argiteria elektrizitate horrekin piztea. Gainera, energia komunitateak elektrizitate hori erabiltzeko aukera izanen du".

U. Kooperatibako kide izateko bazkidetza motak daude. Herri-tarrak dira kooperatibako bazkide nagusiak, erabiltzaileak. Beraiek dute erabaki ahalmen handiena. Aurrera egin dezakeen proiekturen bat identifikatzen denean ekarpenen bat egin beharko lukete, baina ondoren haren onura jaso. Eman eta jaso. Bazkide laguntzaileak udalak eta enpresak izanen dira.

Udala bazkide izanen da?

A. Bai. Proiektu interesgarria iruditu eta bulkada eman behar geniola iruditu zitzaigun.

Enpresendako tokirik bada?

A. Kide izan daitezke, enpresa sortzaile edo zerbitzu emaile bezala. Baten batzuk dagoeneko bada, eta enpresa gehiagok interesa dute. Enpresak baliabide teknikoak eskaini ditzakete. Sakanan dagoeneko badira bere energia sortzen duten enpresak. Horrek komunitateari aukera teknikoak ematen dizkio, eta energia sorrerarako aukera handitzen du.

Zuen enpresa sartua dago?

J. Bai. EBK-ren zuzendaritza kontseiluan enpresa eta udal bana daude. Baina gehiengo herriarrek osatzen dute. Dugun eskarmentuagatik pausoa eman genuen, ahal den guztian laguntzeko.

Enpresa batek zergatik izan beharko luke kooperatibako kide?

"SAKANAN EGON DAITEZKEEN PROIEKTU EGINGARRIAK IDENTIFIKATZEN EGON GARA"

JON IRIGOIEN GABIRONDO

"OSO ZAILA DA HERRI BAKOITZEAN ZUZENDARITZA KONTSEILU BAT SORTZEA"

JON IRIGOIEN FRESNEDA

"ELKARTEA IZANEN DA ERABAKIKO DUENA ZEIN PROIEKTU EGINDEN DITUEN AUERRERA"

ARKAITZ ERRAZKIN

J. Energia komunitatea enpresa, udal eta herritarrek energia elkarbanatzeko sortzen da. Enpresek oso aukera polita dute: teiltuan metro karratu asko dauzkate, askok asteburuetan ez dute kontsumitzen, edo bakarrik goizez lan egiten dute eta arratsaldeko energia hori galdu egiten da... Beraz, enpresak hor egotea oso garrantzitsua da. Zuzendaritza kontseiluan enpresek boto bat izateak garrantzia du. Udalekin gauza bera. Gainontzekoak herri-tarra dira, kontsumitzaileen gehiengo direlako, eta, horregatik boto gehien izanen dituzte.

Berdin da enpresa fundizioa, iturgina edo abeltzaina den?

J. Berdin da zein enpresa mota den. Energia izatea eta hura partekatzea da garrantzitsuena. Eteki sartu da teknikoki esperientzia duelako. Baina ideia da zuzendaritza kontseilua berri behar denean beste enpresa bat sartzea, edozein.

Epeak zehaztuta dituzue?


J. Proiektuak martxan badaude. Udalek jakinaraziko dituzte. Behintzat probak egiteko, proiektu pilotu bat egin eta gero hori errepikatzeko aukera asko dago. Esandakoa, epe luzerako proiektuak dira. Pazientziak aurrera aterako dira. Oso interesgarriak dira, eta datuak onak dira.

U. Hori da. Baina, lehenik, jendearen indarra behar da, ahalik eta bazkide gehien izatea. Horiekin gero eta proiektu gehiago agertuko dira. Eta proiektuak sortu ahala gero eta bazkide gehiago izanen dira.

A. Udalen batzuk proiektuak martxan jarri nahian gabilta. Eta etorriko dira. Interesa duten herritarrek ti-ta nahiko lukete, kide egin eta berehalaxe energia berriztagarria jasotzen hastea. Denbora behar dute.

Sakandarrek zergatik egin beharko lukete kooperatibako bazkide?

U. Azken finean, kontsumitzen duzun energia zure esku egonen da. Ez guztia. Baina, neurri batean, erabaki dezakezu zertan lagundu energia kontsumo hori ardurasuago izateko. Eta Sakanako ikuspuntua gehiago izaten lagunduko du. Baina proiektuak herrietan egiten dira, eta jendeak berea bezala sentituko du proiektua. Polita da. Energia burujabetza edo 0 km-ko energia lortzeko pausok ematea da. Pauso garrantzitsuak eman daitezkeela iruditzen zait. Eta herritarrek izanen dira erabakiak hartzen dituztenak. Horretan onurak besterik ez ditut ikusten.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Jai doinuetan elkarrekin egongo gara

Aurtengo uda inoiz baino azkarrago pasa denaren sentsazioa izan dut. Norbaitek x2ari eman balio bezala. Arrapaladan, Altsasuko Festak iritsi dira, barkatu nire "altsasuzentrisismoa", baina jakina da "normaltasuna" ez dela Altsasuko Festak arte hasten.

Eta, festetan, zer?

Udal programa ikusita, faltan botatzen ditut hainbat "betaurreko", inklusio eta zaintzena beste batzuen artean. Suziriak, zarata, musika altua... horrelakoak askorentzat (bai pertsona bai animaliak) deserosoak izan daitezke, eta asko ez dira festetara gerturatzen horregatik, edo ez dute ongi pasatzen. Praktika on baten erudia: Lakuntzan festetako "Lasaitasun txokoa", atrakzioetan musika jaitsi/kentzearen aukera. Ez hori bakarrik, -baita inklusioa eta zaintzaren ikuspegia festen antolaketan aintzat hartzea ere.

ZAINTZEN HARIRA, ARDURAK BANATZEA ETA FESTAK DENOK DISFRUTATZEKO AUKERA IZATEA NAHI DUGU

Zaintzen harira, ardurak banatzea eta festak denok disfrutatzeko aukera izatea nahi dugu. Zaintzen ditugun pertsonentzako ere bai, noski.

Horrek, aurten Altsasuko Erraldoi Konpartsak 80 urte betetzen dituela gogorarazten dit. Gure familian kontziliazioa, festetan, erraldoiak ziren.

Bai, bai, ama-izebak ileapaindegian lanean zeuden bitartean, aita-osabak erraldoiak dantzatzen, eta gu, dultzainero artean. Nire txalorik handiena etxekeok egindako esfortzu erraldoiagatik eta noski, 80 urte hauetan erraldoiek egindako dantza guztiengatik.

Azkeneko hitzak: erasorik ez; zuen buruak zaindu; ongi pasa, pasatu gabe; eta aurten gure artean egongo ez diren senitarteko eta lagunenez, garagardo bat zerura!

Inoiz baino gehiago, jai doinuetan elkarrekin egongo gara Ion.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astertea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

4 minutuko dutxa

SAKANAKO AUTOPISTA ELEKTRIKOEN AURKAKO PLATAFORMA

Hainbat udalek "4 minutuko dutxa planetaren onurako, jendarte jasangarriago bat izateko" ekimenarekin bat egin dutela jakin dugu. Udal hauen asmo zintzoak ezbaian jarri gabe, eta hainbat "adituk" asteen bizpahiru dutxa 10 minututik beherakoak gomendatzen dituztela jakinik, kanpaina honen erroan dagoen mezu ez agerikoa da sumintzen gaituena. Hau da, herritar xumeak garela egoera okertu ez dadin gauza asko egin ditzakegunak eta hauek egin ezean, krisi klimatikoaren arduradunak garela. Orduan, pisu txiki batean bizi denak 4 minutu dauzka dutxan eta txaleta, lorategia eta hiru auto garajeak dituenak gutxiago? Edo berdin?

Gauza bera gertatu zen 2008ko krisi ekonomikoan. Orduko arduradun politiko eta

mediatikoek mantra hau zabaldu zuten: "geure ahalmenen gainetik bizi izan gara". Baina hala bizi izan ginen? Hala bizi ote gara? Edo hala bizitzera bideratzen gaituzte?

Guri eguneroko gauza txikietan aldatzea eskatzen digute eta errudun sentiarazi, egiten ez baditugu. Baina benetako aldaketa, sistemikoa dena, ekoizpen eredu eta garraio, armagintza industria, mugikortasun eredu, alferrikako makro proiektu xahutzaile edota energia sorkuntza eta banatze sistema pribatuak betiko bidei darraie.

Orain, Ukrainako gerraren aitzakian, Europak armagintzan diru itzelak gastatzea erabaki du urteetan NATOk exijitu dion bezala. Israelgo Estatu sionistak Gazako zerrendaren aurka daraman gerra genozidan 80.000 tona bomba jaurti ditu Europaren sostengu

ziztrinarekin. Bomba gehienak ehiza hegazkin bonbaketariak bota dituzte. Zenbat energia eta lehengai behar da 1.000 kiloko bomba yankee bat egiteko? Eta Gazako haurren gainean botatzeko? Zenbat balio du ehiza hegazkin bonbaketari bat erabiltzea hain garestia den JP-8 erregaia erabiliz? Ba soilik aireratzeko 500 litro erregaia behar ditu, baina mesedez, zuk, 4 minutuko dutxatxo har ezazu.

Ez ote litzateke jasangarriagoa palestinarrak lurretik bonbardatzea?

Bien bitartean, espainiar Estatuan kontsumitzen den energia baina bost aldiz gehiago sortzeko proiektuak eta hauek garraiatzeko ezinbestekoak diren autopista elektrikoak aurrera doaz sakandarren bizitzan eragin zuzena izanen dutenak, baina zuen dutxak, mesedez, gehienez 4 minutukoak izan daitezela.

www.guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436

Ainhoa Etxebarria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Leze bat indusketa zain

Lizarragako tunelaren ondoan dagoen leze batean 1936ko estatu kolpean hildako bi pertsonen gorpuak egon daitezke. Memoria taldeek Nafarroako Gobernuari indusketa egiteko eskatu diote. Otsaportillon bezala, han ere, propio kaskailu tonak bota zituzten

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Estatu kolpearen ondoren, Nafarroan errepresio aldia izan zen 1936an. Makina bat herritar erail zituzten. Lizarragabengoako artzain batek fusilatuta-ko bi pertsonen gorpuak leze

batera nola botatzen zituen ikusi zuen. Lizarragako portuko tunelaren gainean dagoen Artzurbide lezera bota zituzten. Urteak pasata, gertaera horren berri jaso zuen Etxarriko memoria taldeak.

Etxarriarrak Otxola espeleologia taldearekin harremanetan jarri ziren, haiek lezera jaitsi eta jasotako informazioa zuzena zen jakiteko. Espeleologoek lezeari buruzko informazioa bilatzeari ekin zioten. Jakin zuten, Vianako Printzea erakundeak lezea 1954an esploratu zuen, baina hari buruzko inolako dokumentaziorik ez zuten opatu. Gaur egun lezearen gainean harrizko piramide formako egitura bat dago, eta goiko aldetik giltzarrapo batez itxitako burdinazko ate batetik sar daiteke bertara. Egitura hori 1991 eta 1996 urteen artean eraikia izan zela jakin zuten. Opatu zuten azken informazioaren arabera Satorrak espeleologia taldekoak 1999an sartu ziren.

Barrura

Otxola espeleologia taldeko kideak lezean aurrenekoz 2020ko abenduaren 29an sartu ziren. 61 metro jaitsi ondoren propio botatako kaskailu tona pila batez eta hondakinez betetako areto handi bat ikusi zuten. Zabor meta hura 30 metrora eta 81 metroko sakonerran dagoen lezearen hondoraino iristen da. Ikuskizunarekin atsekabetuta gelditu ziren Otxolako espeleologoak.

Aitzurrak eraman zituzten, kaskailua jaso eta giza hezurren bat opatzeko asmoz. Horien ordez 60ko hamarkadako bizikleta matrikulak, antzinako autoren baten matrikulak *Ergoyena*-ko inskripzioekin, Lizarragako bide zaindariaren plaka bat, fusil balaren bat, animalien hezur pila bat eta beste opatu zituzten. Gelaren beheko partean oso hondatuta zegoen pistola zahar bat opatu zuten.

Ikusitakoaren txostena idatzi eta Vianako Printzea erakundeari, Aranzadi zientzia elkarteari eta Foruzaingoari eman zieten.



Lizarragako portuan dagoen Artzurbide lezean egindako ikerketak. UTZITAKOA

Aranzadik irakurritakoarekiko interesa azaldu zuen eta bigarren jaitziera prestatzen hasi ziren.

Berriro barrura

Artzurbide lezera bigarren Otxolako zortzi espeleologo 2021eko apirilaren 10ean sartu ziren. Haiekin batera Aranzadiko zazpi kide joan ziren. Haietako bi sartu ziren lezera. Pistolaz arduratzeko sei foruzain izan ziren, eta Kriminologia Graduko bi ikasle ere. Guztira dozena bat izan ziren lezearen barruan.

Aranzadiko kideek gidatuta hainbat tokitan indusketa txikiak egin zituzten. Aldi berean, foruzainek pistola eta opatutako munizioaren eta bala zorro baten ardura hartu zuten. Otxolako bi kidek lezearen topografia egiteko

baliatu zuten aukera, eta hartan markatu zuten lagin zuloak non egin zituzten arkeologoek eta pistola non agertu zen. Opatutako hezurak gora bidali zituzten, han Aranzadikoek zer motakoak ziren azter zitzaten. Denak etxeko animalienak ziren. Zortzi orduko jardunaren ondoren zapore gazi-gozaorekin atera ziren lezetik.

Eskaera

Ibarreko memoria taldeek Nafarroako Gobernuari eskatu diote Artzurbide leze behar bezala induskatzeko. Etxarriko memoria taldetik nabarmendu dutenez, “kaskailua propio bota bazuten, esan nahi du azpian eraildako gorpuak daudela. Hainbat tokitan hori egin zuten eta azpian beti hezurdurak agertzen dira”.



IRAILAK 16-20

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 16 Irantzu Mozo Ergoienako Biraz

Uztailak 17 Hiart Leitza Artekleta erakusketaz

Uztailak 18 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Uztailak 19 AEKko ikasleak

Uztailak 20 Agenda berezia



Plazaola bide berdea irisgarria izanen da

Horretarako dozena bat kilometrotan lanak egingen dituzte. Ibilbideko lau zatitan egingen dira lanak, tartean Aizkorbe eta Irurtzun artekoan. Aurreikusitako inbertsioaren %5,67 egingen dute zati horretan

AIZKORBE / IRURTZUN

Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak Plazaola bide berdeko hamabi kilometrotan lanak egingen ditu. Lan horiek ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburuz egingen ditu. Egin beharreko lanen erredakzioa egitekoan kontuan izan zituzten ezgaitasunak izan ziren: fisikoa, ikusmena, entzumena eta intelektuala. Gainera, aukeratutako hamabi kilometrotatik 5,4 km mugikortasun mugatua duten pertsonendako egokituta egon behar dute. Kilometro horiek irisgarria bihurtzeko bide berdearen trazatuaren kalitatea handitzea dakar.

Dozena bat kilometro horiek lau zatitan daude banatuta eta haietako bat Aizkorbe eta Irurtzun artekoa da. Bidearen zati horretan egitekoan artea daude, batetik, Aizkorberako bidean hondatuta dauden porlan zatiak konponduko dituzte. Horrekin batera, Plazaola bide berdea errepide ondora hurbiltzen den tokitik Irurtzunen tren geltokia zegoen zabalguneraino, tarteka zoruan konponketak egin eta harri handiren bat kendu eta bide bazterrak landarez garbituko dituzte. Autokarabanen ondoko berdegunean egokitu-



Irurtzunek bide berdeen eguna hartu zueneko. ARTXIBOA

tako aulkia eta mahai moduko seinale bat jarriko dituzte. Gainera, handik bide berdera ateratzeko "zubian" barandilla jarriko dira. Tunelerako bidean bada bidean puntu bat zeinetan eroritako hostoak eta adar zatiek irristakor bihurtzen duten. Zati hori garbitu egingen dute. Horrekin batera, seinaleak eta km punturen bat egokitu dute. Azkenik, Irurtzuno tren geltokia zegoen tokian mugikortasun murriztuko pertsonendako apartakaleku plaza sortu eta markatuko dute.

Plazaolako bide berdearen gaineko Irurtzuno zubian izanen du abiapuntua bide irisgarriak. Iparralderantz, Latasarantz egingez gero, tunelean bukatuko da bide irisgarria. Eta hegoalderantz, Aizkorberantz joz gero, herrira iritsi aurretik dagoen aldapan despedituko da.

Lanek 369.966,35 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Sakanan egitekoak diren lanek 20.987,34 euroko balioa dute, egingen den inbertsioaren %5,67. Next Generation funtsaren bidez finantzatu du departamentuak.



Ekaiko Ganadero etxea udalak esku hartu aurretik. ARTXIBOA

Hirugarren etxe bat bota du Arakilgo Udalak

Aurri egoeran zegoen Ekaiko Ganadero etxea. Aurretik Zuhatzun eta Ihabarren gauza bera egin du

ARAKIL

Zuhatzun eta Ihabarren aurri egoeran eta arriskua sor zeza keten bi etxe hustu ondoren, Ekaiko Ganadero etxea hustutzeko lanak despeditzear daudela jakinarazi du Oihana Olaberria Jaka alkateak. Hiru etxeak botatzeko 150.000 euro ordaindu behar izan ditu Arakilgo Udalak. Alkateak azaldu duenez, "bat oinordekoek oraindik onartu ez duten herentzia bat da, beste etxe bat ondoajo zuen enpresa batena... Diru hori berreskuratzeko esperantza gutxi dugu. Eta haien jabetza lortzeko prozedura nahaste-borraste handi bat da". Olaberriak Etxarrengo etxe baten adibidea jarri du: "duela ia hamar urte eroriz, eta orainenkantean saltzeko moduan dugu. Horregatik pentsatu nahi dut orain bota ditugun hiru etxe horiek bide bera egingen dutela. Baina bide luzea da eta hamar bat ur-

tetara udalean dagoenak zerbait berreskuratzeko aukera izan dezake. Baina epe motzean, zuloa, besterik ez".

Bestalde, Ihabarko Eskribarena etxean etxebizitzak eraikitze-proiektuari dagokionez, Arakilgo Udala Kultura Zuzendaritza Nagusia, Vianako Printzea erakundea, txosten bat egin zain dago. Oniritzia jasotakoan lanak hasiko lirakeela jakinarazi du alkateak.

Itxasperri

Egiarretako ermita arakildarren topalekua da. Han zerbait antolatzen den bakoitzean ibilgailuak nola edo hala aparkatzen bukatzen du jendeak. Horregatik, udalak ingurua ordenatzeko egitasmoa prestatu zuen. Jasotako ekarpenak aztertuta, udala egitasmoa berraztertzen ari da. Beti ere, apartakaleku premia kontuan izanik.

Kale berrituak Etxarrean

Etxarrengo iparraldeak sare eta zoladura berriak ditu garilaren akaberaz geroztik. Obrak 445.241 euro (BEZik gabe) aurrekontua izan zuen. Lehen fasea despedituta, lanen bigarren fasean pentsatzen hasi dira. Hura herriaren hegoaldean dagoen kalean egingen da, elizaren inguruan. Toki Azpiegitura Planaren bidez finantzatu nahiko luke udalak.



Euskara eroso bizitzeko

Sakana Itsasi euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

Matrikula irailaren 25a arte
Zure herrian bertan ikasteko aukera

Gartzia Ximenez 46, behea, ALTSASU

sakana@aek.eus

948 468 258

DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mank (% 40)
Nafarroako Gobernua (% 45)
Hainbat Udak



0 km
SAKANAKO
GIDA

**ALBAITARI BAT
BEHAR AL DUZU?**

<https://guaixe.eus/gida/>





Frontoi txikia lokomotora eta estalpearen arteko espazioan kokatuko da.

Altsasuk frontoi txiki bat izanen du

Estalpearen eta lokomotoraren artean eraikiko du. Bukatuta dauden lanak eskoletako argindar instalazioa hobetzeko egin beharrekoak dira. Udalak, bestetik, Dantzalekuko igerileku ertaineko lanak emateko deialdia egin du

ALTSASU

Altsasuko Udalak Iortia kultur gune pareko plazan frontoi txiki bat eraikitzea erabaki du, batez ere adingabeek eta pilota praktikatzeko hasten diren pertsonen erabil dezaten. Frontoi txikia tren lokomotoraren eta estalpearen artean eraikiko da. Sei metro zabaleko frontisa eta zortzi metroko luzera duen ezker paretan izanen ditu. Frontisak eta ezker paretaren hasierak bost metroko altuera izanen du, baina ezker paretaren akaberan lau metrokoa izanen da altueran. Porlanezko 40 cm-ko zabalerako paretak izanen ditu pilotalekuak eta berde kolorekoa izanen da. Estalpetik pixka bat urruntzeko berdeguenearen zati bat (10 metro karra-tu) hartuko du frontoiak.

Udalak frontoi txikia egiteko 78.436,33 euro (BEZik gabe) aurreikusiko ditu. Lanak egiten interesa duen enpresak bere eskaintza irailaren 25eko 23:59ra arte aurkez diezaioke udalari. Obra bere gain hartzen duen

enpresak 60 egun izanen ditu lanak despeditzeko.

Bi ibilgailu

Udalak bi ibilgailu eskuratuko ditu. Batetik, kale garbiketarako erabiltzeko makina bat erosi nahi du. Horretarako 70.247,93 euro (BEZik gabe) bideratu ditu. Eskaintza egin nahi duen enpresak irailaren 25eko 23:59ra arteko epea izanen du. Behin kontratua emanda, enpresak 90 egun izanen ditu makina udalari emateko.

Bestetik, udalak jakinarazi du Udaltzaingorako SUV motako ibilgailua erosi duela. Sakimovil SM enpresari erosi dio udaltzain autoa 32.270,49 euroren truke (BEZ barne). Udatzaingoraren gaur egungo ibilgailu 2006

UDALTZAINGORAKO SUV MOTAKO IBILGAILUA EROSI DU. KALEAK GARBITZEKO MAKINA EROSIKO DU

urtekoa da. Berria iristen denean, egun udaltzainek erabiltzen duten ibilgailua obren lantaldearena izatera pasako da.

Eskoletako lanak

Altsasuko Udalaren kontratua eskuratu ondoren, Elecnor Servicios y Proyectos SAU enpresako langileak Zelandi eskola publikoan lanean egon dira. Azpiegitura elektrikoa zaharberritzeko lanen hirugarren fasea egiteagatik udalak 81.275,50 euro (BEZa barne) ordaindu dio. Honako lanak egin dituzte: koadro elektrikoak egokitu eta legezatzeko, kable elektrikoak berritzeko eta lan osagarriak egiteko proiektuaren barruan aurten egin beharrekoa zen hirugarren fasea.

Lanak egin aurretik Zelandi eskolak ohiko argindar hornidura zuen. Baina eraikinean 300 pertsonatik gorako okupazioa aurreikusten denez, sorospen-instalazio osagarri bat jarri behar da. Elektrizitate horni-

dura osagarri horren potentzia hornidura arruntaren %100ekoa izan behar du. Udalak erabaki du elektrizitate hornidura osagarri hori Zelandi kiroldegiko transformazio zentrotik hartzea eta ikastetxeraino kable bidez eramatea.

Bestalde, Altsasuko Udalak Txirinbulo haur eskolako jangela zerbitzua Auzo Lagun kooperatibari eman dio 15.889,72 euroren truke. Azkenik, piroteknia materiala eskuratzeko 18.513 euro (BEZ barne) bideratu du udalak. Felix Martinez de Lezea SM enpresari erosi dio piroteknia materiala.

Igerileku ertaina

Dantzaleku kirol gunean dagoen igerileku ertaina konpontzeko lanen deialdia egin du Altsasuko Udalak. Uda honetan altsasuarrek ezin izan dute igerileku hori erabili. Udalaren asmoa da bere ontzia konpontzea. Izan ere, urak igerilekutik ihes egiten du eta, ondorioz, etengabe ura sartu behar izaten du udalak. Ondorioa da igerilekuko ura oso hotza egoten zela. Gainera, ur kontsumo izugarri handitzen da. Lanek 49.274,68 euroko (BEZik gabe) aurrekontua dute. Obra bere gain hartu nahi duenak eskaintza irailaren 25eko 23:59ra arte aurkez dezake. Udalak deialdia egiten duen bigarren aldia da, aurrenekoan hutsik gelditu baitzen.

Igerilekuko matxura konpontzeko, batetik, haren ontziak duen zeramikazko estalduraren gainean PVC armatuzko estaldura berria jartzea aurreikusten du Altsasuko Udalak. Horrela, iragazketa arazoak konpondu nahi ditu udalak. Bestetik, igerileku handiaren eta txikiaren instalazioaren konpentsazio hodiak ere konponduko dituzte. Konpentsazio ontzi horiek hormigoiz armatuz eginak daude eta ura pasatzen uzten dute, barrutik kanpora eta alderantziz. Urak kanpora ihes egitearen ondorioz, igerilekuei ura etengabe bota behar zaie. Konpentsazio ontzietara ura sartzearen ondorioz, berriz, lohiak sartzen dira eta ponpak tratatzen dituzte.

IGERILEKUAN URA ETENGABE SARTU BEHARRAK BAINURAKO URA HOTZA UZTEN DU



Berritutako komunitako bat.

Hobekuntza lanak egin dituzte Altsasu institutuan

Ikastetxean egindako lanek, guztira, 100.000 euroko aurrekontua izan dute

SAKANA

Hezkuntza Departamentuak aginduta kiusugileak Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan lanean aritu dira uda partean. Bi egiteko zituzten. Alde batetik, ikastetxearen eta bere kiroldegiaren artean dagoen patio berean dauden saskibaloiko saskiak eta areto futbolero ateak ere berritu dituzte. Horretara 60.000 euro bideratuko ditu departamentuak. Horretaz aparte, Altsasuko institutuko eraikin zaharreko lehen solairuko komunak ere berrituko ditu. Lan horiek 40.000 euroko aurrekontua izan dute.

EGURDIAN
sutarako egurra

608 57 03 57

etxea berotzeko ezinbestekoa



Altsasu Muthiko txikiak peñakoek 50. urteurrena antolatzeako egindako bilera.

"Batek baino gehiagok ator berria egin dugu"

RICARDO ALDASORO UNAMUNO PEÑAKO URTEURRENEKO ANTOLATZAILE TALDEKOA
Muthiko Txikiak peñak aurten 50. urteurrena ospatuko du eta hainbat kide elkartzeko dira gaur

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Koadro txuri-gorriko atorrak nabarmenduko dira Altsasuko festetako ostiralean. Muthiko Txikiak peñak 50 urteurrena ospatuko du eta 150 bat kide ospakizunera batu dira.

Zeinek sortu zuen peña?

Orain jarraian egindako 50 urteak betetzen ditugu. Gu atera aurretik Muthiko Txikiak existitu zen: 10-11 urteko mutiko batzuk atera ziren 1954 urtean, eta bi urte egin zituzten. Ondoren, 1959an berarratu eta beste bizpahiru urtez atera ziren.

Zer giro zegoen 1974an?

Aurreko urtean Altsasuko Gazteak peña atera zen. Aldaketa urteak ziren eta festa giro gutxi zegoen. Kuadrilla sentimendua galtzen ari zen, nahikotxo. Lehen kuadrilla deitzen zitaion, ez peña. Ez nago ziur, baina litekeena da 1972an kuadrilla bat bera ere atera ez izana. 1971an uste dut Lagun Onak besterik ez zela atera.

Ateratzea diozunean zertaz ari zara?

Festa egunetan txarangarekin kalera ateratzea. Peña gisa ulertzen dena: ez ziren soilik lagun kuadrillak, jende gehiago elkartzeko. **Zuek pausoa ematea erabaki zenuen?**

Altsasuko Gazteak atera ondoren, gazteteagoak ginen hainbat kuadrilletakoak elkartzeko deialdia egin zuten. Deitzaileen artean, besteak beste, Luis Mari Lopez de Goikoetxea Sueskun zegoen. Interesa genuen guztiak elkartu gintuzten eta proposatu ziguten peña sortzea. Muthiko Txikiak izena jartzea proposatu ziguten, aurretik kuadrilla batek erabiliko izena zelako.

Esan eta egin?

Bai. Modu nahikoa prekarioan atera ginen 1974.ean. Denbora gutxi izan baikenuen festak prestatzeko, bi hilabetetan prestatu

genuen dena. Gu gazteak baginen, gurekin joaten ziren musikariak are gazteagoak: musika eskolako batzuk ziren. Musika ez zen izan zitekeen onena, baina guztiarekin atera ginen festara: atorrak, kafeak eta hori guztia ere bai.

Zenbat zineten?

Hiruzpalau kuadrilla, 70 bat kide.

Segida izan zuen.

Urte hartan bertan hobe funtzionatzen hasi ginen, antolatuago. Hurrengo urteko festei begira peñako kide bakoitzak hilero 100 pezeta (0,60 euro) ordaintzen genituen. Dirua pilatu genuen eta 1975eko festak hobe prestatzeko aukera izan genuen, azpiegitura gehiago genuen. Esaterako, Txantreako txaranga bat etortzen hasi zen. Hurrengo urterako jende gehiagok eman zuen izena eta ia ehun ginen.

Aurreko peñakoak zuekin bat egin zuten?

Ez. 50. hamarkadan atera zirenak ordurako gu baino askoz ere helduagoak ziren. Proposatu ziguten eta haien izena hartu genuen.

Muthiko. Mutilak zineten bakarrik?

Bai. Txikiak, hori erlatiboa zen. Aurreko urtean zegoen emakumezko bakarra gurekin jotzen zuen akordeoilari bat izan zen. Esandakoa, peña bi hilabetetan antolatu genuen, korrika eta presaka. Bi urtetara-edo emakumezkoak peñakide egitea eskatu zigutenean ez zen inolako arazorik egon haiek kide egiteko.

Festetako atorra zergatik da lauki txuri-gorriduna?

Aurrekoak halakoekin atera zirelako, eta erreferentzia hori genuen. Esan didatenez, arropa eta oihal denda zuen Sebastian Garciak egin zizkien festetako atorrak aurreko peñakoei.

Pankarta egin zenuen?

Bai. Orduan lanera sartu ziren udaltzain batzuei erreferentzia egin zien.

"ALDAKETA URTEAK ZIREN ETA KUADRILLA SENTIMENDUA GALTZEN ARI ZEN, NAHIKOTXO"

"EMAKUMEZKOAK PEÑAKIDE EGITEA ESKATU ZIGUTENEAN EZ ZEN INOLAKO ARAZORIK EGON"

Nolakoa zen orduko festa egun bat kuadrilla bateko kide batendako?

09:00etan ateratzen ginen. Agertzen ez zenari isuna jartzen zitzaion. Goizean txarangarekin herrian barna bueltatxo bat ematen genuen. Bazkaltzera joan eta ondoren kafean elkartzeko ginen. Eta irauten genuen arte jarraitzen genuen festa egiten.

Kafeak aipatu dituzu.

Gure Etxea eraikinean eman ziguten bazkaldu ondoren. Guztiendako kafea, kopa eta purua. Eta animatuta, herriari buelta ematera, auzo bat bera ahaztu gabe.

Peña guztiak elkarrekin ibiltzen zineten?

Ez, peña bakoitza gure txarangarekin eta bere pankartarekin ibiltzen ginen herrian barna. Taberna eta piperoetako zurrakapoteetan geldialdiak egiten genituen. Herri guztira festa giroa eramatea zen gure egitekoa. Peña bakoitza nor bere alde. Herri guztira iristen ginen, baita urrutien zegoenera ere: tren geltokiko fondara ere iristen ginen. Orduan ospetsua zen. Bueltan makurrenekin kontuz ibili behar genuen, trenbideetan sartzen baitziren. Baina tira. Gainera, Txunkai auzoan ere tabernak zeuden.

Jaitsierarik bazen?

Gu atera eta hiruzpalau urtetara hasi zen. Ordura arte peña bakoitza nor bere alde ibiltzen zen. Eta pankarta nonbaiten gelditzen zen. Garai hartan bonboa eta txindatak peñetakoek jotzen genituen. Eta bakarren batek beretako hartu eta gau osoa eman zezakeen bonboa jotzen... Nahikoa anarkikoa zen. Ez zen bukatzeko modu egokia. Beraz, Zumalakarregi plazan elkartzea erabaki genuen eta banatuta, baina denak elkarren atzetik Foru plazara jaistea. Horrela, plazara iritsita, guztia jaso eta aurrera. Musika goizaldeko hirutarako bukatzen zen eta ez zegoen beste alternatibarik.

Nola antolatzen zineten peñan?

Aurrenekoa, eta garrantzitsua, txaranga lotzea zen. Diru gehien hark eramaten zuen. Eta gero kafearena antolatzea. Kafea hainbat tabernatan eman ziguten, baita urte batez dantzalekuan ere. Gainera, goizetan zerrenda pasatzeaz arduratzen zen pertsona zegoen, agertu ez zirenei, edo berandu iritsi zirenei isunak kobratzen zien.

Gaur egun peña gehienak bat egin da daude. Zer gertatu zen?

Adinean gora egin eta ateratze-ari utzi genion. Eta errelebo falta egon zen. 20-30 elkartuz gero... Lehen txaranga bat ordain zitekeen, gaur egun garestia da kontratatzea. Pentsatzen dut parte hartzea asko jaitsi zelako bat eginen zutela, ez zutela beste irtenbiderik izanen.

Aurten 50. urteurrena. Noiz hasi zineten antolatzen?

Hizketatzen hasiak ginen. Batek esan zidan: halako urteurrena antolatzen ari da. Besteak interesa duela dirudi. Horrela ez zegoen ezer egiterik. Antolakuntzan interesa zutenen berri nuenekin ados jarri, elkarrekin hitz egin eta San Pedroren ondoren antolatzen hasi ginen. Zubeztia elkartean asteartero 19:00etan elkartu gara. Antolatzen aritu gara eta ongi ateratzea espero dugu.

Festen antolaketan eskarmentua baduzue!

Baita pixka bat ahaztuta edo herdoilduta ere. Urte asko dira dagoeneko. Zortzi edo hamarren bat elkartu gara asteartero. Jasotako ideiekin osatu dugu urteurreneko egitaraua.

Zer moduzko erantzuna izan du zuen proposamenak?

Ikaragarria. Inolaz ere ez genuen halakorik espero. Ezta ametsetan ere. 150 baino gehiago elkartuko gara. Antolatzerakoan diruarekin estu ibili gara, ea bakoitzak zenbat jarri beharko genuen txaranga, hau, hura eta bestea ordaintzeko. 60 edo 70ek izen emateko esperantza genuen, hoguei euroekin ordaintzeko. Eta, begira! Hala ere nahikoa garesti atera da.

Goizean elkartuko zarete?

Lehenen bezala 09:00etan ez (barrez). Zubeztia elkartean 11:00etan elkartuko gara, auzaterako. Zutik zerbait jan-edan. Txaranga etorri eta jotzen eta girotzen has



Altsasu Muthiko txikiak peñako argazki zaharrak. UTZITAKOAK

dadila. Ibilbide bat osatu dugu herriko taberna guztietatik pasa ahal izateko. Ahaleginduko gara festa herri guztira zabaltzen. Goizean Alde Zaharrean ibiliko gara eta taberna pare bat dauden tokietan eginen ditugu geldialdiak, peñakide guztiak taberna bakarrera kolpean ez sartzeko. Tabernari batzuei joanen garelako jakinarazi diegu, bestela jokoz kanpo harrapatuko genituen. 15:00etan bazkaltzera joanen gara. Ondoren zabalgunean ibiliko gara. Aita Barandiaran adinduen egoitzatik ere pasako gara. Eta jaitziera eginen dugu.

Himnoa baduzue?

Manuel Turrillas Ezkurra maisuak konposatua. 50. hamarkadako kuadrillakoei egin zioten enkargua. Himnoak sanferminetako kutsu handia du, eta gero jota jotzen da. Hasieran ez genekien himnoa genuenik ere. Iruñeko Aldapa peñarena kantatzen genuen, moldatuta. Doinuari letra Enrike Zelaiak jarri zion eta Jose Mari Satrustegi Zubeldiak itzuli. Askotan txarangek beste peñak jotzen dituzte, eta hau ez dakit ezezaguna den edo zer, ez dugu entzuten. Aurten berriro entzuten da himnoa. Txarangari partiturak pasa dizkiogu, eta jendeari himnoaren letra.

Oroigarrien bat egin duzue?

Urteurren egunerako kamisetak egin ditugu, armarrria eta bi dutekin: 1974-2024. Bestalde, bazkari txarteletan neska-muthiko jartzen du. Eskaera izan genuen eta hala egin dugu.

Atorra jantziko duzue?

Jakina. Nik duela 50 urteko atorra dut. Antolatzen ari garenotatik gehienek ere badute. Baina nik nirea estua dut eta semeek jantzen dute. Eta batek baino gehiagok ator berria egin dugu.

... eta askoz gehiago eta asko zuretzat pentsatuta.

Gure ogiak ezagutzen dituzu, orain **gozotegia** deskubritu

AMAYA 1964 - OROITZA

Amaya

OKINDEGIA

678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19 •

ALTSASU

FESTAK

IRURTZUN

IRAILAK 13 Ostirala

HIRIBERRIKO TXITERAN

19:00 Euskal Herriko ardoen dastaketa.

IRAILAK 15 Igandea

AZOKA IRURTZUNEN

10:00-14:30 Azoka:

Abereen gunea: ardiak, behiak, behorrak, txerriak eta oiloak.

Azoka gardena: gazta, esnekiak, ogia, ardoa, barazkiak...

Artisautza.

Gazta dastaketa eta herri txapelketa.

Erakusketak, musika, talogileak, jokoak...

11:00 Zaldi heziketa naturala

Vanessa Ugarterekin: ikusi eta ikasi pausoz pauso Lucy Reesen ikerketa etologikoan oinarritutako lan eredu, konfiantzazko harremana sortuz, frontoiaren atzean.

15:00 Herri bazkaria, Pikuxarren.

18:30 Arakil eta Irurtzun arteko herrik kirol desafioa eta emakume harrijasotzaileen erakustaldia, Foru plazan.

ALTSASU

FESTAK

IRAILAK 13 ostirala

JAI BATZORDEAREN ALTSASUKO PEÑEN EGUNA

09:30 Dianak Altsasuko gaiteroekin.

10:30 Muthiko Txikiak peñaren auzatea eta kalejira L. urteurrena ospatzeko, lortia zabalgunean.

11:30 Auzatea Beti Jaten elkarteak eskainita, Foru plazan.

12:00 Zirkoteke, Zumalakarregi plazan.

Herriko nagusiei omenaldia:

Abardia jarriko zaie etxean, Altsasuko gaiteroek girotua.

Jauziak eta dantza plazak, Jai Batzordearen txoznan.

Jai Batzordeak antolatuta.

13:00 Patxi eta konpainiarekin dantzaldia, Foru plazan.

Gaiteroen kontzentrazioa, Zumalakarregi plazan.

Errigorako produktuekin egindako pintxo dastaketa, Herri Txokoaren txoznan.

Herri Txokoak antolatuta.

14:30 Nagusien omenezko bazkaria. Ondoren, Fidelekin dantzaldia, lortia kultur gunean.

15:00 Makarroi jatea, Altsasuko

Peñak antolatuta, Foru plazan.

Muthiko Txikiak peñaren L. urteurrena ospatzeko bazkaria.

16:30 Peñen kafea, Foru plazan.

Altsasuko Peñak antolatuta.

17:00-20:00 Elkartepoteoa eta merienda (merienda kalejiran zehar).

Altsasuko Peñak antolatuta.

17:00 Muthiko Txikiak peñaren L. urteurrena ospatzeko kalejira, lortia zabalgunetik.

18:00 Mute zirko ikuskizuna, Zumalakarregi plazan.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-21:30 Los Tenampas hirukotearen kontzertua, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera eta omenaldia.

Altsasuko Peñak antolatuta.

21:15 Peñen iritsiera. Jarraian, Altsasuko zortzikoa eta larrain dantza Burundar txistulariekin eta Etxarriko gaita jotzaileekin eta Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00-00:00 Goxo Txarangarekin kalejira, Gure Etxetik.

Altsasuko Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatuta.

22:00 Edu Zardoyaren emanaldia, Herri Txokoaren txoznan.

Herri Txokoak antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Tatta & Denso eta Latxama taldeak, Jai Batzordearen karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

23:30 Doctor Deseo taldearen kontzertua, Foru plazan.

01:00-04:00 DJ Las Maris, Herri Txokoaren txoznan.

Herri Txokoak antolatuta.

IRAILAK 14 Larunbata

09:30 Dianak Burundar txistulariekin.

10:30-13:30 Eskolarteko txirridularitza proba, Zumalakarregi plazan.

Burunda Txirridularitza Elkarteak antolatuta.

10:30 Udaltzaren irteera Otadiako Santo Kristo ermitara txistulariek lagunduta, udaltxean.

10:00-13:00 Kalejira, La Encina kultur elkartearen egoitzatik.

La Encina kultur elkarteak antolatutako.

11:30 Auzatea, Foru plazan.

La Encina kultur elkarteak eskainita.

12:00 Azken errepiketa eta zortzikoa, Altsasuko txistulariek lagunduta, Foru plazan.

Apar festa, Baratzekobiden.



ALTSASU 2023an jaiotako kintaren lehen argazkia. Udalak 62 haurrei egin zien ongi etorria zapia jarriz txupinazoaren aurretik.



ALTSASU Erraldoien dantzek alaitu zituzten Altsasuko kaleak txupinazoaren ondoren.

Herri Kirol apustua, Jai Batzordearen txoznan.

Jai Batzordeak antolatuta.

12:30 Sakanan Kantuz '24 Taberna

Ibiltariak lagunduta, Foru plazatik.

13:00 Eguerdiko kontzertua:

Trasteando taldea, Foru plazan.

15:00 Herri bazkaria, Taberna Ibiltaria taldeak girotua, Zelandi kiroldegian.

Palestinaren aldeko elkartasun bazkaria, lortia zabalgunean.

Jai Batzordeak antolatuta.

Ondoren, elkartasun argazkia

16:30-20:00 Peñen kafea, kalejira eta merienda.

17:00-21:00 Kalejira, La Encina kultur elkartearen.

La Encina kultur elkarteak antolatuta.

18:00 Otadiako Santo Kristo LIII.

Pilota Txapelketaren finala.

Pilotajauko elkarteak antolatuta.

Marietak Zirika Zirkus

konpainiaren ikuskizuna, Zumalakarregi plazan.

19:00 Teknoa: Then, Korena, Aitor Lizarraga, Jai Batzordeak antolatuta.

Jai Batzordearen karpan.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-22:00 Jaian Jai taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazan.

Altsasuko Peñak antolatuta.

21:15 Peñen iritsiera. Jarraian, Altsasuko zortzikoa eta Larrain

dantza Burundar txistulariekin eta Etxarriko gaita jotzaileekin, eta zezensuzkoa, Foru plazan.

22:30 Kontzertuak, gaztetxean.

Jai Batzordeak antolatuta.



ALTSASU Dina Karrat, Amaia Urkijo eta losu Imaz txupineroak, Yalah Nafarroa Palestinarekin eta Altsasu Memoria taldeetakoak.

23:30 Los Zopilotes Txirrius taldearen kontzertua, Foru plazan. Ondoren, 04:00ak arte, DJ Raul Vaquero, Foru plazan. 00:30-02:30 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara. Altsasuko Peñak antolatuta. 01:00 2000 gaua, Jai Batzordearen karpan. Jai Batzordeak antolatuta.

IRAILAK 15 Igandea

09:30 Dianak Burundar txistulariekin. 10:00-13:00 XCV. Altsasu Txirringularitza Lasterketa. Altsasuko Kirol Elkarteak antolatuta. 11:00 Haize Berriak bandarekin kalejira. 11:30 Auzatea, Foru plazan. Amandrea elkarteak eskainita. 11:30-14:00 Erraldoi eta Buruhandien kalejira Altsasu eta Etxarri Aranazko gaitero jotzaileek lagunduta, Iortia zabalgunetik. 12:00 Joaldunak, herritik zehar. Jai Batzordeak antolatuta. Artisau azoka, Jai Batzordearen karpan. Jai Batzordeak antolatuta. 13:00 Eguerdiko kontzertua: Haize Berriak banda, Foru plazan. 16:30-19:00 Peñen kafea, kalejira eta merienda. Altsasuko Peñak antolatuta. 17:00 Pilota profesionala jaialdia: EPELen Masters Caixabank torneoaren play-off partida,

Burunda frontoian. ASPEk antolatuta. Bakarrizketak: Xabier Artieda, Gorputz antzerki absurdua, eta Inixio, Jai Batzordearen karpan. Jai Batzordeak antolatuta. 18:00 Otadiako Santo Kristo LIII. Pilota Txapelketaren finala: Pilotajauku infantilak: Azkona - Beramendi / Carabias - Rios; Promesen lau eta erdia: Ibarluzea / Sarasibar; Eliteen eskuz binakakoa: Igoa - Santesteban / Irribarria - Sotil. Pilotajauku elkarteak antolatuta. 18:00 Play Back lehiaketa eta txokolate jana, Baratzekobiden. Elektrotxaranga. Jai Batzordeak antolatuta. 19:00 Peñen kalejira. Altsasuko Peñak antolatuta. 19:30 Buruhandiak, Foru plazan. 19:30-21:30 Puro Relajo taldearen kontzertua, Foru plazan. 20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik. Altsasuko Peñak antolatuta. 21:15 Peñen iritsiera. Jarraian, Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza Burundar txistulariekin eta Etxarri Aranazko gaita jotzaileekin, eta Zezensuzkoa, Foru plazan. 22:45 Festen agurra, azken petardo sorta eta su artifizialen ikuskizuna, udaletxe aurrean. Ondoren, Altsasuko peñen kalejira, eta mikro irekia, Jai Batzordearen karpan. Jai Batzordeak antolatuta.



LARRIALDIAK

☎ 112



Izan giltzarri!

guaixe
kide



**Altsasuko Udalak
Guaixe komunitatearen
giltzarri izatera
animatzen zaitu.**



Javier Olo Martinez Altsasuko alkatea



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



KOLABORAZIOA

Sakanako lexia konposatuak (VI)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Aurrekoekin jarraituz, hona jarraian Sakanako euskal hizkeretako hitz bakar batez baino gehiagoz osatutako lexiko mailako burutzeak.

Baldinbaz (ere). Zerbait gertatzea edo ez, hala espero dugunean erabiltzen da. Artzibarren Baldin ba! Gaztelaniako "*¡Malo sea!, a bien ser; ¡cómo no!*" adierazten ditu. "*-I, ez dik auriye eiñen urrengo egunoinen?*"

-Baldinbes! (-Hi, ez dik euria eginen hurrengo egun hauetan? -Baldinbaz!). *Ala ein berko dau, baldinbes e!* (Hala egin beharko du, baldinbaz ere!). Orreaga Ibarrek honela jaso zuen Artzibarren: "*Baña maztekoa, badakizu ze erran dakozun fraile orri? Balin ba, ongi erran al dakot.*" (Baina emakumea, badakizu zer erran diozun fraide horri? Baldin ba, ongi erran ahal diot!).

Baraua hautsi. Orokorra izan da bere erabilera erlijio kontuei loturik, baina bestela ere erabili izan da. Epe batean ezer jan edo edan gabe egon ondoren, jaten edota edaten hasi. Normalean egunero, gosariarekin hausten da baraua. Oso zabaldua Euskal Herri osoan. Mendebaldeko

hizkeretan *barausi*. Euskaltzaindiaren Hiztegian *barausi* dakar. Etxarri Aranatzenean ere erabiltzen zen duela gutxi arte 'gosaldu' aditzaren ordez, egun '*deseyunetu*' gehiago erabiltzen bada ere. Gosaldu, aldiz, hamarretako edo hamarretakoa moduan erabiltzen da. *Gaur guña eyet barube autsi.* (Gaur oraino ez diat baraua hautsi).

Barra-barra egin. Erabat hautsi, txiki-txiki egin, txikitu. Gaztelaniako "*hacer trizas*" adierazten du. Orotariko Euskal Hiztegiaren ugaritasun zentzua eta gogor zigortzearena dauka. Gurean: "*Arbol baten kontra jo ta kotxie barra-barra ein dik!*" (Arbol baten kontra jo eta kotxea barra-barra egin dik!).

Bazterrak harrotu. Egoera okerren ondorioz etsipena nagusitzen den momentuetan giroa aldatzeko eta arazoei aurre egiteko erabiltzen den esamoldea da. Gaztelaniako "*remover cielo y tierra*" adierazten du. *Mundu guzie lur jota doola ikusita, bazterrak arrotu bierra dakau lenbeilen!* (Mundu guztia lur jota dagoela ikusita, bazterrak harrotu beharra daukagu lehenbailehen!).



Bazterrak larri egon. Egoera okerra pairatu eremu jakin batean. Aranatz eta Arakilen erabili izan da bereziki. *Larri zienan bazterrak Inasa itxi zebienien!* (Larri zeudenan bazterrak Inasa itxi zutenean!)

Beharko (aditza), Beharko (e)ta. Nahiko orokorra da bere erabilera euskal hizkeretan.

Beharko, jakina, erremediorik gabe. Galdera bati erantzuteko erabiltzen da eta galderako aditzaren ekintza betetzeko beste erremediorik ez dagoela adierazteko erabiltzen da, aditz hori normalean elipsian geldituz. Etxarri Aranazkoak dira ondorengo esaldiak: *-Agertuko zarie biyer goizien auzatia? -Bierko (agertu), gosaltzie nei badiau!* (-Agertuko zarete bihar goizean auzatera? -Beharko (agertu), gosaltzea nahi badugu!). Bigarrenak, derrigorrean egiten dela zerbait adierazten du: *Bierko ta, alde ein ziyabien erritti, bestela...* (Beharko (e)ta, alde egin zitean herritik, bestela...)

Beretan egon. Aldatu gabe jarraitu, batez ere iritziari dagokionez. *Bere hartan egon, egoera berean. Iguel da ze eskeintzen doozun, ori beretan yonen da.* (Igual da zer eskaintzen diozun, hori beretan egonen da).

Bere ustekoa. Ez izan eta bai uste. Harroputz, handiuste, hantuste. Gaztelaniako "*creído, iluso*" adierazten dute. *Zorri beten afairik ez tikok eta, bee ustekuoi!* (Zorri baten afaririk ez zeukak eta, bere usteko hori!). Ondorengo, Anttoni Mendiola etxarriar zenduak

horrela entzuten omen zion bere aitonari askotan. *Ago ixilik, neskatua! Orri kaso ein ber doon? Ori den, baa, ez izen ta bei uste!* (Hago isilik, neskatua! Horri egin behar dion kasu? Hori dun; bada, ez izan eta bai uste!).

Berez izan. Nahiko orokorra da. Berez izan, jaiotzaz horrela izan. Izatez. ordezkatzeko balio du. Ondorengo Etxarri Aranazko esaldia dugu Eusebio Markotegiri jasoa. *Beres eztana, ezta makilles ee!* (Berez ez dena, ez eta makillaz ere!).

Beste gainerakoan. Bestela, aitzitik. Nahi ez dena edo gogoz kontra egin edo gertatu izanaren arrazoiketarako erabiltzen da gehienbat. *Atzo itze eman nuzubielakos, beste geñakuen enittunan etorko.* (Atzo hitza eman nizuelako, beste gainerakoan ez nindunan etorriko).

Besteren atorrean sartu. Behar ez den eztabaidan edo gaian sartu. Gaztelaniako "*meterse en camisa de once varas*" erabiltzen du. *Abil kontus, ori besteen atorrien sartzie dok ta!* (Habil kontuz, hori besteren atorrean sartzea duk eta!).

Bost jakin. Perifrasi hau erabiltzen da norbaiti ezer ez dakiela adierazteko. Ironikoa da. "Zer jakin behar duk hik!" adierazpen honen parekoa litzateke. Zenbatzaileak "bost axola" esamoldean duen esanahi berbera du. Honek "axolarik ez izatea" adierazten duen moduan, "bost jakin" perifrasiak "ezer ez jakitea" adierazten du. *Bos baakik/n ik!* (Bost badakik/n hik!). *Auriye ein ber deela! Bos baakizubie zuek!* (Eurria egin

behar duela! Bost badakizue zuek!).

Burua lehengo lepotik (eduki). Sakana osoan erabiltzen zen eta baita Basaburuan ere. Norbaitek edo zerbaitek aldaketarik jasan ez izana adierazten du esapide honek. *Nabai-nabaye duk buube lengo lepoti dakakela!* (Nabari-nabaria duk burua lehengo lepotik daukaala!). *Orreaga Ibarrek* (1995, 722) honela dakar: "*Lengo lepotik burua* (AN-Basaburuan) (Genio y figura hasta la sepultura)". *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* jasoa dago beste zentzu batean: "*Ipar*. Kontu egin, imajinatu".

Buruan eta guzti hesteak eduki. Oso jatuna izan. Inoiz asebetetzen ez denari esaten zaio horrela, normalean, gazteei egokiturik azaltzen da. *Gazteiek, bizi guzien, jan ez, irentsi ein ye, buuben eta guzie zizkobiek estiek eta!* (Gazteek, bizi guztian, jan ez, irentsi egin diteke, buruan eta guzti zauzkathek hesteak eta!).

Burutik behera egin. Trufatu, barre egin norbaiten bizkar. Norbait umiliatu erabat. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren, "Goitik beherantz, burutik hasi eta oinetaraino". Gaztelaniako "*humillar; reirse de alguien*" adierazten du. Gurean horrelaxe: "*Obe yau ez jolastie geyo oin kontra, azkeniako beti eitten ziegubiek buuti bia!*" (Hobe diagu ez jolastea gehiago horien kontra, azkeneko beti egiten zigutek burutik behera!). *Orotariko Euskal Hiztegiaren* honelaxe dakar: "OEH (*despreciar; ltm. Querer hacer de la cabeza abajo, hacer a la boca. Son expresiones groseras.*)".

DUELA 25 URTE...



Mus Txapelketa euskaraz

II. Sakanako Mus Txapelketa Euskaraz jokatu zen Arbizuko kiroldegiko tabernan. Irurtzun, Uhartea Arakil, Arbizu eta Etxarri Aranazko 30 bikotek eman zuten izena. Tomas Razkin eta Bernardo Bakaikua Esteban Etxeberria eta Jose Luis Fernandezi irabazi zieten finalean. Kantsolazio finalean Benancio Olasagarre eta Koldo Mundiñano Maribi Astiz eta Mikel Goldarazeni gailendu zitzaizkien.

Derbi sakandarrarekin hasiko da denboraldia

FUTBOLA Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek Lakuntzan jokatu duten partidarekin mustuko da gizonezkoen Erregional mailako denboraldia. Altsasuk kategoría berean Arga Ibaia du aurkari. Emakumezkoen Preferente Mailan Altsasuk Berriozar hartuko du

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako futbol taldeak 2024/2025 denboraldia hasteko prest eta irrikaz daude. Gehienak abuztu erdialdetik aurrera hasi ziren entrenatzen, lehiaketarako prest egoteko. Egunotan ere lagun arteko makina bat partida jokatu dituzte, sasoiaren egoteko.

Emakumezkoen Preferente Mailan jokatu du Altsasuko emakumezkoen talde nagusiak. Kategoría honek multzo bakarra du, eta Gazte Berriak, Idoia, Peña Sport, Burlades, Berriozar, Valle de Egües, Castejon, Gares, Cantolagua eta Universidad de Navarra taldeak izango ditu aurkari. 22 jardunaldi dituzte aurretik, eta lehen jardunaldia etxean hasiko du Altsasuk, irailaren 14an, larunbatean, 17:30ean, Berriozar taldea hartuko baitu.

Bestalde, emakumezkoen kadeteen eta infantilen mailan lehiatuko den Altsasuk urriaren lehen asteburuan ekingo dio ligari. Huarte izango du lehen aurkaria.

Hirurak Erregionalean

Gizonezkoen Sakanako hiru taldeek gizonezkoen Erregional mailako laugarren multzoan jokatu dute aurten. Altsasu Preferente mailatik Erregional mailara jaitsi zen. Lagun Artea gutxiatik ez zen Erregional mailako igoera fasera sailkatu, eta Etxarri Aranatz sailkatu zen, baina igoera fasean, Etxarriko jokalariek batek salatutako irain arrazistengatik Etxarri partida ez jokatzearabaki zuen, eta fasetik kanpo geratu zen, Nafarroako Futbol Federazioak hartutako erabaki polemikoan. Hortaz, gure taldeak kategoría berean lehiatuko dira: Erregional mailako laugarren multzoan.

Etxarri Aranatzek, Lagun Arteak eta Altsasuk Amaia, San Jorge, Rotxapea B, Berriozar, Lagunak B, Asdefor, Beti Onak



Lagun Artearen eta Etxarriren 2023/2024 denboraldiko derbia, Zelai Berrin. ARTXIBOA

LAGUNARTEKO PARTIDAK JOKATU DITUZTE EGUNOTAN GURE TALDEEK, LIGARI EGIN BAINO LEHEN

B, Mendillorri, Beti Kozkor B, Alde Zaharreko Kluba, Kirol Sport, Baztan, Arga Ibaia, Aurrera eta Universidad de Navarra B taldeak izango dituzte aurkari 2024/2025 ligan. 34 jardunaldi dituzte aurretik.

Derbiarekin hasiko da liga. Lehen jardunaldian, Lagun Arteak Etxarri Aranatz taldea hartuko du Zelai Berrin irailaren 14an, larunbatean, 12:00etan hasiko den partidari. Altsasuk, aldiz, Sanduzelain jokatu du Arga Ibaiaren kontra, irailaren 15ean, igandean, 18:00etan.

Jubenilak, kadeteak eta beste

Jubenilen Liga Nazionalean jokatu zuen Altsasu taldeak maila galdu zuen aurreko denboraldian eta aurten jubenilen lehen mailan jokatu du. Lehen mailako liga asteburu honetan hasiko da. Irailaren 14an, larun-

bata, Berriozar izango du aurkari Altsasuk 12:00etan Berriozarren hasiko den partidari. Aldiz, bigarren mailan jokatu duten Lagun Arteak, Etxarri eta Altsasuk irailaren 21ean hasiko dute jarduna. Lagun Arteak eta Etxarri derbia izango dute Lakuntzan, Itxesaldan, eta Altsasuk Berriozar B taldea hartuko du, Dantzalekun.

Kadetei dagokienez, lehen mailako kadeteak ere martxan daude. Irailaren 14an, larunbata, Altsasuk San Jorge hartuko du 15:30ean Dantzalekun. Bigarren mailako kadeteetan lehiatuko diren Lagun Artea eta Altsasu astebete beranduago hasiko dira lanean, irailaren 21ean. Berriozarren kontra jokatu du Lagun Arteak eta Rotxapearen kontra Altsasuk.

Infantilen mailan, Altsasuko talde batek Infantilen Lehen Nafarroa mailan jokatu du, eta irailaren 21ean hasiko da lehiari, Azkoienaren kontra. Asteburu bat beranduago abiatuko dira infantilen lehen eta bigarren mailako ligak. Altsasu, Etxarri Aranatz eta Lagun Artea klubetako makina bat taldek hartuko dute parte.



Zabaletak eta Martijak Mastersean aurrera egitea dute jokoan Burundan. ARTXIBOA

Altsasuk Zabaletari edo Martijari emango dio bidea

PILOTA Peña-Zabaletak eta Jaka-Martijak Masterseko finalerdietako txartela dute jokoan Burunda frontoian

M.B.G. ALTSASU

CaixaBank Mastersa azken txanpan dago. Asteburuan hasierako ligaxkako zarpigarren eta azken jardunaldia jokatu zen, eta ligaxkako bi bikote onenak, Etxeberria-Mariekurrena eta Altuna-Iztueta zuzenean sailkatu dira finalerdietarako. Euren atzetik sailkatutako lau bikoteek (Laso-Tolosa, Jaka-Martija, Peña II.a-Zabaleta eta Zabala-Imaz) play-offak jokatu dituzte, eta sailkapeneko azkeneko bi postuetan geratu diren Artola-Rezusta eta Ezkurdia-Albisu Masteretik kanpo geratu dira. Hau kolpe latza izan da aurrelari arbizuarrarendako, baina Mastersa ahaztu eta Martijarekin batera jokatu duen San Mateo ferian du burua, egun, Ezkurdiak.

Sakandarren guda, Altsasun

Asteburuan Masterseko play-offak jokatu dira. Gaur, ostirala,

Laso-Tolosak Zabala-Imaz izango dituzte aurkari Galdakaon, eta irailaren 15ean, igandean, Jaka-Martija eta Peña II.a-Zabaleta lehiatuko dira nor baino nor Altsasuko festetan antolatutako jaialdian. Bi bikote irabazleak finalerdietarako sailkatuko dira. Sarrerak salgai daude Entradas-fronton webgunean.

Peña eta Zabaleta behetik gora iritsi dira play-offetara. Hasiera zaila izan zuen bikoak, Zabaletaren lesioa tarteko, baina etxarrendarra osatu bezain pronto gora egin dute. Jaka eta Martija Masterseko azken jardunaldian jipoi ederra jasota iritsiko dira Altsasura, baina biko esplosioa osatzen dute eta lehia latza espero da. Bi atzelari arakildarren arteko gudak ikusmin handia piztu du, jokoan asko dagoelako: urriaren 4an Nafarroa Arenan jokatu diren finalerdietarako txartela.

Josu Igoa, Otadiako trofeoa lortzera

Altsasuko Pilotajauku klubak antolatutako 53. Otadiko Kristo Deuna Torneoko finalak irailaren 14an erabakiko dira, 18:00etan, Burunda pilotalekuan. Orain arte ikuskizun bikainak eskaini dituzte pilotari afizionatuek. Eliteen binakako txapelketan ordezkariek sakandar bakarra dugu, Josu Igoa pilotari etxarriarra. Aurrelariak Santesteban bikotearekin lortu du Burundako final handian egotea, eta bikoak duen guztia emango du Irribarria gipuzkoararen eta Sotil nafarraren aurrean gailendu, eta txapela Sakanan geratzeko.

Promesen lau eta erdian Ibarluzea gipuzkoarra eta Sarasibar nafarra lehiatuko dira. Jaialdia zabalduko duen Pilotajauku klubeko pilotari infantilen finala Beramendi-Azkonak eta Carabias-Riosek jokatu dute.



Sakanako I. Areto Futbol Kopan parte hartu duten taldeetako jokalaririk: Aralar Mendi, Altsasu F.S. eta Arbizu. UTZITAKOIA

Sakanako lehen kopa Altsasun geratu da

ARETO FUTBOLA Altsasu F.S, Arbizu Kirol Taldea eta Aralar Mendi klubek antolatutako Sakanako I. areto futboleko kopak harrera ona izan zuen. Giro ederra egon zen Zelandin, eta Altsasuk lortu zuen garaipena. Taldeak liga hasteko gogotsu daude

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Larunbatean Sakanako I. Areto Futbol Kopa hartu zuen Altsasuko Zelandi kiroldegiak. Eki- mena Arbizu Kirol Taldeak, Altsasu F.S. taldeak eta Aralar Mendik antolatu zuten, Sakanako areto futboleko taldeak elkarrekin harremanetan jarri, areto futbola sustatu eta euren za-

letasunarekin gozatuz, egun polita pasatzeko. Irurtzango Xota falta zen. "Hau lehendabiziko edizioa izan da, lehen hartu emana. Hurrengoetarako eurekin harremanetan jarriko gara" azaldu du Arbizu Kirol Taldeko Endika Mendinueta Iribarrenek. Uharte Arakilgo Aralar Mendik Nafarroako Futbol Federazioko

areto futboleko hirugarren mailan jokatzeko du. Aldiz, Arbizu Kirol Taldeak eta Altsasu F.S taldeak aurten federazioko areto futboleko Maila Autonomikoan jokatu dute.

Sakanako I. Areto Futbol Kopa triangeluarrean jokatu zen. Lehen partidan Arbizuri 1-2 irabazi zion Altsasuk, bigarren partidan Altsa-

suk 4-1 hartu zuen mendean Aralar Mendi, eta hirugarren partidan Aralar Mendi gailendu zen, 4-2. Golaveragea kontuan hartuta, Altsasu F.S. izan zen kopako txapel-duna. "Jendea Zelandira hurbildu zen eta giro polita egon zen; ongi pasatu genuen. Txapelketa polita izan zen. Ekimena aurrera atera ahalizateko zozketak egingenituen. Jendea kontentu zegoen, eta gure kasuan, irabazi genuenez, are gehiago" azaldu du Altsasu F.S. taldeko Goyo Rodriguez Marquez jokalaririk.

Altsasu F.S, talde berria

Altsasu F.S. joan zen denboraldian sortu zen, 2023/2024 denboraldian. "Areto futboleko zaleak inplikatu ginen, eta taldea sortu genuen. Altsasura areto futbola ekartzea lortu dugu berriro" azaldu du Rodriguezek, pozez.

Aurreko denboraldian Araban jokatu zuen Altsasu F.S taldeak, Favafutsal edo Areto Futboleko Euskal Elkarte Arabako Ligan, "Nafarroako Futbol Federazioan federatu eta federazioko areto futbol txapelketan izena emateko epea gaindituta zegoelako. "Horregatik Gasteizen lehiatu ginen. Gustura aritu ginen, eta Arabako Ligako txapelketa irabaztea lortu genuen".

Aurten, aldiz, Nafarroan lehiatuko dira, federazioko areto futboleko Maila Autonomikoan. "Federazioko txapelketa honen maila handiagoa da. Egia esan, liga hasteko irrikaz gaude". Al-

Areto futbol liga, hastear

Nafarroako areto futbol ligak irailaren 21eko asteburuan hasiko dira. Hirugarren mailan, Aralar Mendik Burlata izango du aurkari. Lehen Maila Autonomikoan, Gazte Berriaren kontra ariko da Arbizu, eta Altsasuk Subiza hartuko du.

tsasu F.S. taldeak behar duen aurrekontua handituko da. "Zelandi kiroldegia alokatu, arbitrajea, fitxak, bidaiak... dirua da, baina Altsasuko tabernen eta enpresen laguntza ari gara izaten, eta eskertuta gaude".

Gabonetan, 24 orduko torneo

Altsasu F.S taldeko Goyo Rodriguezek azaldu duenez, abenduaren 28an eta 29an 24 orduko areto futboleko torneo antolatzeko asmoa dute, taldeak aurrera egiteko dirua lortu eta areto futbola sustatzeko.

"SAKANAKO KOPAN GIRO POLITA EGON ZEN ZELANDIN, ONGI PASATU GENUEN"
GOYO RODRIGUEZ



CBASK

Lehen saskiratzeak

SASKIBALOI Altsasuko CBASK saskibalo taldeak larunbatean antolatutako 3x3 Street Altsasu saskibalo txapelketan zazpi taldek eman zuten izena. Txapelketa Intxostiapuntako plazako saskibalo kantxan jokatu zen, giro onean. Eguraldiak eutsi zion, eta gustura aritu ziren saskibalo zaleak. Urrian hasiko diren ligetarako atariko polita.

KIROL + MONITOREEN LAN-POLTSA

Gutxieneko baldintzak:

- Oinarrizko kirol titulazioa
- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz (CI egiaztatu beharko da).

Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek beren curriculum honako helbide honetara bidali beharko dute:

kirolak@sakana-mank.eus



Iazko helmugaratzea.

TXIRRINDULARITZA**95. Altsasu Proba, aldaketekin**

Altsasu Kirol Elkarteak antolatutako afizionatuen 95. Altsasuko Proba igandean jokatu da, 10:00etan. Aurten km gehiago izango ditu, 141 km guztira, eta zazpi aldiz igoko dute Altamira. Ez da Lehendakari Txapelketarako baliagarria izango; Nafarroako Torneurako puntuatuko du. Iaz Guillermo Silva (Rural Kutxa) izan zen garaile, eta Iker Mintegi altsasuarra laugarren.

ATLETISMOA Emakumeen Atletismo eskolak, atek zabalik

Aurten 13 urte beteko ditu Sakanako Mankomunitateak antolatzen duen Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolak. Urriaren 4an hasiko da, eta ekainaren 7ra arte, ostiralero, 17:00etatik 18:15era, Altsasuko Dantzalekuko pistetan eskainiko da. Izena ematea zabalik dago irailaren 27ra arte (50 euro), eta 18 urtetik gorako emakumeek dute parte hartzeko aukera.

TXIRRINDULARITZA Eñaut Oiarbideren lehen garaipena, Lukinen

Larunbatean juniorren eta kadeteen bigarren urteko LI. Lukingo Udala Saria jokatu zen. Esprint estuan Eñaut Oiarbide etxarriarrak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen, eta bere taldea, Quesos Albeniz, talderik onena izan zen. Luca Martinez (Sakana Group-Alea) lehen kadetea izan zen, sailkapenean bederatzigarren.

Alzheimerraren Egunera mugitu dute martxa

ATLETISMOA Josefina Arregi Klinika Alzheimerraren III. Martxa-Lasterketa herrikoa irailaren 21era aldatu dute, Alzheimerraren Nazioarteko Egunarekin bat egiteko. Egitarau zabala prestatu dute, eta izena ematea zabalik dago

M.B.G. ALTSASU

Irailaren 21a da Alzheimerraren Nazioarteko Eguna, eta Josefina Arregi Klinikak egun horretara ekarri nahi izan du Alzheimerraren III. Martxa-Lasterketa herrikoa. Ekimenarekin Alzheimerra ezagutarazi nahi du klinikak, gaixotasunaren sentsibilizazioa eta prebentzioa egin, eta kirol-ohitura osasungarriak sustatu. Bide batez, klinikarendako laguntza jaso nahi da.

Aurretik, hitzaldiak

Irailaren 20an Josefina Arregi Klinikako profesionalak bi hitzaldi eskainiko dituzte *Vivir con el Alzheimer* lelopean. Altsasuko Jubilatuen Klubeko hitzaldia 12:00etan izango da, Laura Moreno neuropsikologoak eskainitakoa. Etxarri Aranazko Jubilatuen Klubera Ander Galarza fisioterapeuta hurbilduko da, 17:30ean.

Martxa eta lasterketa

Alzheimerraren III. Martxa-Lasterketan hiru modutan har daiteke parte: korrika, oinez edo 0 km dortsala erosita. Hiru zirkuitu diseinatu dira: 9,5 km-koa, korrikalariendako; 8 km-koa, oinezkoendako; eta 4 km-koa, adinekoendako edo haur txikiak dituztenendako. Klinikatik abia-



Iaz maiatzaren 14an izan zen ekimena, euripean. ARTXIBOA

tuko dira, oinezkoak 10:30ean eta korrikalariak 11:30ean. Izena ematea zabalik dago irailaren 30era arte, klinikako webgunean. Prezioa 10 eurokoa da, eta kamisetak eta opariak jasoko dituzte.

Bestelako ekimenak

Martxaren egunean Altsasuko plazan zenbait ekitaldi antolatu dira, 10:30etik 12:30etara. DJ Reimy animatuko du giroa. Haurrendako puzgarriekin eta Lactutxiki maskotarekin batera, belaunaldien arteko jarduerak egongo dira. Haurrek eta gazteek

adineko jantzi simulatzailea eta "Teknologia eta esperientziak partekatuz" proiektuaren errealitate birtualeko betaurrekoak erabiltzeko aukera izango dute, adinduen tokian jartzeko. Adinekoek, aldiz, "Altsasu mugitzen da" programaren barruan lantzen den ariketa fisikoa egiteko aukera izango dute. Probak bukatzerakoan, salda, txistorra eta gazta banatuko dira plazan, zozketak egongo dira eta Irantzu Gonzalez Dantza Eskolaren eta Etorkizuna Dantza Taldearen emanaldiak izango dira.

FUTBOLA Irati Igoa, ibilbide berria Osasuna B taldean

Zazpi denboraldiz Mulier taldeko jokalaririk izan ondoren, gorritxo izaten jarraituko du Irati Igoa Sesmak, baina Gorka Pascua altsasuarrak zuzentzen duen Osasuna B taldean. Mulierri eskerririk beroenak eman dizkio etxarriarrak, "hasieratik nigatik apustu egiteagatik". 2. RFEF mailan, asteburuan Racing Santander hartuko du Osasuna B-k.



Lukingo podiuma. MARTIN EARLY



Irati Igoa Sesma. UTZITAKOIA

Maidar Betelu Ganboa ERGOIENA

Irailaren 21ean Dorraok 18. Ergoienako Bira hartuko du, Sakanako Koparako puntuagarria den proba. Ergoienako Bira Ergoienako Udalak eta Lizarraga, Unanu eta Dorraoko Kontzejuek antolatzen dute, hainbat erakunde eta babesleren laguntzarekin. Irantzu Mozo Berastegi unanuarra da antolakuntzako kideetako bat eta korrikalariak lasterketan parte hartzea eta sakandarrak Ergoiena ezagutzera animatu ditu.

18 urte beteko ditu Ergoienako Bira. Adinez nagusi egin zaigu proba. Nola hasi zinen antolaketan?

2004an hasi zen Ergoienako Bira. 2 urtez ez zen egin, pandemia-rengatik. Beraz, aurten hemezortzigarren edizioa izango da. Unanuarra naiz; hasiera batean herriko pertsona bat zen Ergoienako Bira prestatzen ibili zena eta hura laguntzearren sartu ginen orduko gazteak ginenak. Urteak pasa ahala, udalean ere egon ginen, eta hor zuzenki tokatu zitzaigulako aritu izan ginen Ergoienako Biran laguntzen, baina "marisaltsera" hutsa naitenez eta herrian gauzak egitea eta herriko gauzetan laguntzea gustatzen zaidanez, urtero aritzen naiz lasterketaren inguruan. Izan ere, herri txikietan gauzak egon daitezke, lana egin behar da. Auzolanak egiten ez badira, ez dago ezer.

Ergoienako bailara hiru herrik osatzen dute: Lizarragak, Unanuk eta Dorraok. Bailaran ekitaldiren bat antolatzearen beharra ikusi zenuen, herrian mugimendua egon, eta, aldi berean, bailara ezagutarazteko. Horrela jaio zen Ergoienako Bira.

Bai, hala da. Gure bailara txikia da; gure hiru herriak, eta Beriain eta Andia sakan batean daude kokatuta. Leku polita da. Gure mendiak mendizalez gainezka izaten ditugu, baina lasterketa honekin gure herriak ezagutarazi nahi ditugu, eta jendeari esan nahi diogu bailara txikia garelako, baina hor gaudela.

Garai hartan Joxe Mari Mercero unanuarra bezalako korrikalari bat izateak ere eragina izango zuen proba antolatzerakoan.

Izan liteke. Joxe Mari Mercero 2019an hil zen. Iruñean bizi zen, baina Ergoienako Birara eta Sakanako probetara etortzen zen. Ergoienara Beste Iruña taldeko bere taldekideak ekartzen zituen, eta bizi bitartean hor egon zen, beti proba bulkatzen.



Irantzu Mozo, erdian, alboan Mari Sol Mozo, Ergoienako alkatea, eta Javi Mozo, Birako antolakuntzako kidea, dituela. UTZITAKOIA

"Ergoienako Bira gogorra, baina polita dela esaten digute"

IRANTZU MOZO BERASTEGI ERGOIENAKO BIRAKO ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

ATLETISMOA Irailaren 21ean 18. Ergoienako Bira jokatu da Dorraon. Irantzu Mozo antolakuntzako kideak bertara hurbiltzera animatu ditu sakandarrak

Ergoienako Birak bailarako hiru herriei buelta ematen die. Urtero herri batek hartzen du irteera eta helmuga, txandaka. Joan zen urtean Unanun jokatu zen, aurten Dorraon izango da eta datorrena Lizarragak hartuko du.

Bai. Aurten, Dorraotik aterata, Unanura helduko da lasterketa, gero dermiotik berriz Dorraora itzultzeko. Berriz ere Unanura joango da lasterketa, handik Lizarragara jotzeko. Eta bertatik Dorraoko helmugara iritsiko da. 8,5 km-ko proba da.

Ez da ohiko lasterketa, proba gora-beheratsua baita, maldaz josia.

Bai, parte hartzaileek hori esaten digute, nahiz eta 8,5 km izan, oso gogorra dela. Maldan gora, maldan behera, ibilbide lauan, gero berriz gora... hori izterrendako

"ERGOIENAKO BIRAREKIN GURE HIRU HERRIAK EZAGUTARAZI NAHI DITUGU, HOR GAUDELA ESAN"

latza omen da. Nik ez dut behin ere egin, baina hala dela diote (kar-kar).

Gogorra bai, baina aldi berean oso ederra. Korrikalariak hori nabarmentzen dute.

Bai, hori diote. Gure bailara mendiz inguratua dago, dena berdea da, inguruak nahiko zainduak ditugu eta, beraz, polita da. Puntu altuenetara iristerakoan Sakana guztia ikusten da. Korrikan daudela ez dakit korrikalariak paisaia ikusteko tarterik izango duten, baina leku polita da.

Aurten dorrobarrei antolakuntzan aritzea gehiago tokatuko al zaie?

Gutxi gorabehera lan talde berdina aritzen gara urtero antolakuntzan: udal zinegotziak, konzejuetako kideak eta herrietako jendea, baina, jakina, proba hartzen duen herriko herritarrei lan gehiago egitea tokatzen zaie, hori bai, denon artean lagunduta.

Irailaren 21ean 10:00etan hasiko da Ergoienako Birako mugimendua.

Ordu horretan, 10:00etan, izena ematea zabalduko da, 10:30ean haurren lasterketak izango dira eta 11:00etan helduen proba. Dorraoko plazan egongo da irteera eta helmuga.

Aurten, lehenengoz, aurretik izena emateko aukera eman duzue.

Proba gehiago zabaldu nahi genuen, azken edizioetan partaidetza gutxitzen joan delako. Inguruan lasterketa asko ditugu data horietan, eta gureak beste zenbait probekin bat egiten du. Horregatik, proba gehiago zabaltzeko izena ematea aurretik zabaltzea erabaki genuen. Ea jendea animatzen den. Rockthesport webgunean eman daiteke izena.

Zergatik iruditzen zaizu partaidetzak behera egin duela? Agian irailean oraindik ekitaldi asko daudelako?

Iraila oporren bukaera da, ikastetxeetara bueltatzea, herrietako zenbait festa... Aurten Josefina Arregiren martxa eta lasterketa ere egun horretan jarri dituzte, eta hurrengo egunean Uharte Arakil Beriain Km Bertikala da. Datorren edizioei begira beste data bat aurkitzea burutik pasatu zaigu; hor gabilta, bueltaka. Izan ere, daten kontua borroka bat bezalakoa da. 18 urte darraz gure lasterketa antolatzen, lehenak izan gara. Zergatik jarri dizkigute egun berean beste proba batzuk? Datena sekulako borroka da.

Ergoienako Birako txapeldunek sari berezia dute, Unanuko ihoteetako mamuxarroen katolak.

Hasieran ohiko trofeoak banatzen ziren, bertako produktuen lotekin batera, baina momentu batean polita iruditu zitzaigun txapeldunei katolak oparitzea, katola Unanuko maskara delako, bertakoa eta berezia. Altsasuar batek

"GUREA ASPALDIKOA DA, BAINA DATA BEREAN BESTE PROBA BATZUK JARRI DITUZTE. DATENA BORROKA LATZA DA"

berak trofeo gisa prestatuko zizkigula esan zigun, eta ordutik hala egin dugu. Kanpotarrak diren korrikalariak jasotzen dituztenean: "eta hau zer da?" galdetzen digute. Eta ihoteen historia kontatu behar diezu.

Eta, bukaeran, auzate ederra.

Gurea ere festa guztiak bukatzen diren bezala bukatu behar da, jana eta edariarekin; hau da gure kultura eta gure izaera. Gureta-ko ere, egindako lanaren ondorengo saria da, lasaitu ederra. Izan ere, lasterketa prestatzeak badu bere lana. Foruzainek bi errepideak ixten dituzte, baina herriak guk itxi behar ditugu, eta soilik bidegurutzak ixteko jende asko lotu beharra dago.

Azken urteetan, Ergoienako Birarekin batera Ergoienako Eguna antolatzen duzue.

Uste dut 2017an hasi ginela Ergoienako Eguna antolatzen. Batetik, lasterketa bukatuta, gero ez zegoela ezer ikusten genuen. Bestetik, ni orduan udaletxean zinegotzi nengoan, eta bailararen egunik ez genuela, eta agian zer bait egin beharko genukeela jarri zen mahaiaren gainean. Azkenean, Ergoienako Biraren egunean bertan Bailararen Eguna ospatzea erabaki genuen.

Aurten ere ospatuko duzue.

Bai, aurten Dorraon izango da. Ergoienako Bira jokatu eta gero, txaranga egongo da herrian barna. Aurten Dorraon taberna berria zabaldu dute, eta bertan pote batzuk hartzeko aukera izango dugu. 15:00etan herri bazkaria dugu frontoian, 17:00etan hurrendako jokoak, plazan, 18:00etan aizkolariak, eta ondoren txaranga. Egun polita izaten da, hiru herritako jendea elkartzen garelako. 100-120 ergoendar inguru biltzen gara.

Dorraora joateko aitzakia ederra.

Ergoienatik sakandar guztiak gonbidatzen zaituztegu Ergoienako Biran parte hartzera, lasterketa ikustera, edo gure herriak ezagutzera etortzera. Ongietorriak zarete.

Ergoienako herriak oso zainduak dituzue eta urtero hobekuntzaren bat egiten duzue; etxeak berritu, muralak margotu... denetatik.

Herri bakoitzean lantalde bat dago, herriak aurrera ateratzeko eta bultzada pixka bat emateko lanean dabilena. Gureak herri txikiak dira, eta, gainera, gehiago txikitzen ari dira. Ea buelta ematea, eta herriak aurrera ateratzea lortzen dugun.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 13

IRURTZUN Kontzertua.

Juan Mari Beltranen Euskal Herriko musika eta soinu tresnak kontzertua, *Cultur izan 24* programaren barruan. Sarrera: doan, gonbidapenarekin. **19:00etan, kultur etxean.**

LARUNBATA 14

IRURTZUN Mendi irteera.

Pirinioetara irteera: Midi D'Ossau mendira, 22 kilometro eta 1300 metroko desnibeleko ibilbidea. Pikuxarrek eta Iratxok antolatuta. **07:00etan, autobus geltokian.**

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Urdalurrera 33 kilometroko ibilbidea. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

EGIARRETA Arakilgo Agur uda festa.

Oharra: Suhiltzaileek jarritako elkartasun barra izanen da. **Itxasperrin.**

18:30 Moby Dick, Xabier Artiedarekin.

19:00 Eñaut Elorrietaren Ateosteko kontzertua (5 euro).

20:00 Transfugas taldearen kontzertua.

IRURTZUN Kontzertua.

Swingtronics taldearen kontzertua. **20:30ean, Pikuxar plazan.**

IGANDEA 15

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Beundera, 37 kilometroko ibilbidea. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

ASTELEHENA 16

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, udaletxearen aurrean.**

ASTEAZKENA 18

IRURTZUN Ipuin kontaketa.

Amaia eta Martin barazkien jaiari ipuin kontaketa.

18:00etan, liburategian.

LAKUNTZA Batzarra.

Abuztuko festen balorazio bilera. **19:00etan, udaletxean.**

IRURTZUN Irakurle taldea.

Euskarazko irakurle taldea: *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* Olga Tokarczuk egilearen liburua mintzagai. **19:00etan, Pikuxar elkartean.**

OSTEGUNA 19

OLATZAGUTIA Zinema.

20.000 especies de abejas filmaren emanaldia. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

OSTIRALA 20

IRURTZUN Antzerkia.

Antzerki tailerren topaketa: *En el parque* antzezlanaren emanaldia. Gaztelaniaz. Sarrerak: 5 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

OLATZAGUTIA Bertso txapelketa.

Bardoak Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa: Joiak: Idoia Granizo, Jone Ruiño, Aitziber Leoz, Oier Lakuntza, Iratxe Legarra eta Olatz Bados (Sakana) – EzKrushak: Eider Azkoaga, Jon Zendoia, Xabier Ayarza-Marien, Jon Subijana, Josu Sanjurjo, Antton Ciriza eta Saioa Alkaiza (Iruñerria). **19:00etan, gaztetxean.**

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astetik aurrera, edukiak jasotzeko epeak hauek izanen dira:


- **Gutunak:** Asteartea 10:00ak arte.
- **Agenda:** Asteartea 13:00ak arte.
- **Zorion agurrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- **Iragarki laburrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- **Hil oharrak:** Asteartea 13:00ak arte.
- **Eskelak:** Asteazkena 12:00ak arte.

Kontuan har ditzazuen. Eskerrik asko!



EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 13




Larunbata, 14



Igandea, 15




Astelehena, 16



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA

Kamioi eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila Sakanan. Curriculumak: tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitoreen lan poltsak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Olaztin ludoteka lanpostua betetzeko deialdia: Lehiaketa oposizio bidez beteko da. Lanaldia %50ekoa izango da. Baldintzak eta informazio gehiago www.olazti.com web orrian. Deialdian parte hartzeko eskabidea telematikoki egin behar da nahitaez. Olaztiko Udaleko erregistro elektronikoa <https://sedeelectronica.olazti.es> estekan. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 16ko 24:00etan amaitzen da.

IKASTAROKAK

Altsasun Elkar zaintzen duten emakumeak egitasmoan izen ematea zabalik: Egitasmo honen barruan saio hauek antolatu dira: jarduera fisikoak astean bi orduz eta jarduera emozionalak hamabost egunetan behin. Goizeko 09:15tik 10:15ra irailaren 23tik azaroaren 28ra. Informazio gehiago eta izen emateak Altsasun@al-itsasu.net - 948 564 823), Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ssbaltasu@ss-

baltasu.eus - 948 467 662) edota Mank-en Anitzartean zerbitzuan (anitzartean@sakana-mank.eus - 648 070 710).

Arbizuko kiroldegiko ikastaro eskaintza: Yoga, soinketa eritmikoa, Cross Training, Spinning, Zumba eta Euskal dantza ikastaroetara izen ematea ireki da. Adin eta maila ezberdinak daude baita igeriketa ikastaroetan, informazio gehiago 948 461 002 telefonon edo kiroldegian bertan. Izen emateak irailaren 16tik aurrera.

OHARRAK

Lakuntzako entitateen-dako Udalaren dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide eredu www.lakuntza.eus webgunean dago. Eskaerak urriaren 4ra arte aurkez daitezke.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira urriaren 4a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta udaletxean.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakin@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Etxarri Aranazko igerilekuak irailaren 15era arte zabalik egonena dira: ostiralean 12:00etatik 20:00etara eta asteburuan 10:00etatik 20:00etara.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa IAT Sakanan herriz herri: Irailak 16 eta 17 Etxarri Aranazten / Irailak 18 eta 19 Iturmendin / Irailak 20 eta 23 Altsasun / Irailak 24 Olaztin / Irailak 25 Ziurdian. Herri guztietan ordutegi bera izango dute, 9:15etik 14:15era.

Altsasuko Txantxari ludotekan izen ematea: irailaren 10etik 20ra 948 012 012 telefonora deituz edo ludoteka@altsasu.net e-postara idatziz.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztaile eta abuztuan. Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS


WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearterko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarki ondorior sor daitezkeen gorabereren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA




Eusebio Lizaur Urien

"Aittune ez zaitugu ahaztuko"

Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan soineko xuriz jantzia buruan orlegi, bihotzean sua. Olerkari penatuaren gozo eta mina amodio eta kanta, zure berba leun, zure gatzaren bizia, zure burdinaren gorria dira gaur nerretzat aterbe.

ESKELA



Joseba Gurrutxaga Leatxe

Izar berri bat ageri da Gure zeru gainean

Flores Arregui familia
Zizur Nagusia - Lakuntza 2024ko irailaren 11a

JAIOTZAK

- Rim Larabas Hafdala**, abuztuaren 1ean Altsasun.
- Baramek Cheik Hamadi**, abuztuaren 30ean Altsasun.

EZKONTZAK

- Garazi Otsagabia Letamendia eta losu Arroki Carabaca**, irailaren 7an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- Eusebio Lizaur Urien**, irailaren 9an Lakuntzan.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



2024ko Bardoak txapelketako aurkezpena zenbait parte hartzaileekin. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Sakandarrak taldekako bertsolari txapelketan

Gaur, irailak 13, hasiko da Bardoak txapelketaren zazpigarren edizioa. Hamahiru taldek parte hartuko dute, eta hirutan bertsolari sakandarrak izanen dira. Hogeitasei saio izanen dira, hemezortzi udalerritan; besteak beste, Olatzagutian eta Irurtzunen

SAKANA

Duela hamabi urte sortu zen Bardoak Nafarroako taldekako bertso txapelketa, herrialdeko Bertso Eskolen sarea indartzeko asmoz. Ordutik, bi urtean behin antolatzen du Nafarroako Bertsozale Elkarteak, auzolana eta talde lana oinarrian jarritz. Bertsozaleen beste modu batera lantzeko aukera ematen du txapelketak, "bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatuz, gune eta plaza berriak barneratuz eta molde parte hartzaileak praktikan jarritz". Aurten taldekako txapelketaren zazpigarren edizioa izanen da, eta talde parte hartzaileen herrietan ez ezik, sei herritan izanen dira saioak: Etxauri, Iruberrri, Iruñea, Irurtzun, Tafalla eta Tuter. Txapelketako finalurrekoak bertan izanen dira, hain zuzen ere.

Gaur, irailak 13, ostirala, hasiko da txapelketa eta urriaren 26an izanen da final handia. Guztira, hogeitasei saio izanen dira, Nafarroako hemezortzi udalerritan, tartean

Olatzagutia eta Irurtzongo finalurrekoa. Hamahiru taldek parte hartuko dute: Drimtin, Assurancetourix eta Manteleko Sobrak A multzoan; Errimaren Matxinatuak, Baztanzopak eta Hor gu! B multzoan; Pikutara Goaz, Argako Bixiguak eta Malerreka ez da Baztan C multzoan, eta Joiak, EzKrashak, Pirini Bardo eta Mutilatua D multzoan.

Sakanako hainbat bertsolarik parte hartuko dute 2024ko Bardoak txapelketan. Manteleko Sobrak taldean Ekain eta Hodei Alegre altsasuarrek parte hartuko dute, Leitzako Beñat Astiz, Eki Mateorena eta Barañaingo Kattalin Lizarragarekin batera. Pikutara Goaz taldea Irurtzun "eta periferiako" bertsolariek osatzen dute, besteak beste, Joana Ziganda, Zigor Gartzia Zian eta Juan Felipe Lizarraga Iperekin, eta Joiak taldea sakandarrez osatuta dago: Idoia Granizo, Jone Rubio, Aitziber Leoz, Oier Lakuntza, Iratxe Legarra eta Olatz Bados. Guztira, 91 parte hartzaile

le izanen dira txapelketan, bertsolari, gai jartzaile, antolatzaile eta abar kontuan hartuta.

Txapelketaren lehen fasea, hamahiru saioak, gaur hasi eta hilaren 28ra bitarte jokatu da. Finalurrekoak urriaren 4tik 13ra jokatu dira: joan-etorriko hiru kanporaketa izanen dira. Sei saio guztira. Kanporaketa horietako bakoitzean irabazle suertatzen den taldea pasako da finalera. Guztira, hiru talde. Finala urriaren 26an izanen da, Garesko frontoian, eta ondoren afaria izanen da.

Lehenengo asteburuan, gaur, 19:00etan, Sunbillako Ulubeltza Elkartearen irurtzundarrez osatutako Pikutara Goaz taldea ariko da Malerreka ez da Baztan taldearen aurka. Bihar, 18:00etan, Lizarrako La Bota Peñan, Manteleko Sobrak altsasuarrekin Assurancetourix taldearen aurka ariko da. Bigarren asteburuan, irailak 20, ostirala, Joiak sakandarrak etxean ariko dira Olatziko gaztetxean, 19:00etan, EzKrashak taldearen aurka.

Bardoak 2024 Sakanan

Bertsolari sakandarrak Bardoak txapelketako taldetan.

A multzoa - Manteleko sobrak (Leitza-Altsasu-Barañain)

- Beñat Astiz, Ekain Alegre, Hodei Alegre, Eki Mateorenan eta Kattalin Lizarraga.

C multzoa - Pikutara Goaz (Irurtzun eta periferia)

- Aitor Irastortza, Julen Bernaldo de Quiros, Joana Ziganda, Endika Legarra, Zigor Gartzia 'Zian', Juan Felipe Lizarraga 'Ipe' eta Jose Martin Mugiro.

D multzoa - Joiak (Sakana)

- Idoia Granizo, Jone Rubio, Aitziber Leoz, Oier Lakuntza, Iratxe Legarra eta Olatz Bados.

Bardoak txapelketaren saioak Sakanan.

- Bigarren asteburua: Irailak 20, ostirala, 19:00etan, Olatzagutiko gaztetxean: Joiak - EzKrashak.
- Bigarren finalurrekoa: Urriak 4, ostirala, 18:30ean, Pikuxar elkartearen: C multzoko lehena eta D multzoko lehena.



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Globala tokikoaren gaineratik

Demagun herri bat, zeina izugarri harro dagoen bere nortasunaz eta tokiko kulturaz. Are gehiago, herri horretako ordezkariak bertako festak iragartzeko "sustraiak indartzera" eta "tokikoa globalaren gaineratik jartzera" deitzen du egitarauaren goiburuan, "festak horretarako tresnatzat" erabiliz. Aurrerago, tokikoa globalaren gaineratik dagoen pare bat adibide aipatzen ditu haren tesia defendatzeko: kuadrillan abestea eta plazan dantzatea.

Hala ere, denok dakigu hitzak edukiontzi hutsak direla zentzuz betetzen ez badira eta beharbada, herri imaginario horretako ordezkari horrek ahaztu du 10 minutuko zortziko batekin (bakarrik) ez dela tokiko kultura globalaren gaineratik jartzen. Eta beharbada herri horretako ordezkariarentzat "orainari eta etorkizun globalizatuari aurre egin ahal izateko" bertako hizkuntza ezabatzea beharrezkoa izango da; edo gutxienez, hori islatzen du "tresna" bezala aurkezturiko egitarauak.

Herri horretako aurtengo festetan euskararen presentzia ia marjinala izango da egitarau ofizialean, udalak antolaturiko kultur eskaintza gaztelania hutsean delarik. Antolatu diren kontzertu eta emanaldietan ezinezkoa izango da euskaraz den ezer aurkitzea eta beraz, bazterrean uzten du biztanleriaren zati bat. Hori al da "kolektiboari bere lekua ematea"?

Harrigarria da pentsatzea herri horretako gobernu taldeko inork ez duela zalantzan jarri "sustraiak indartzeko" festa horien egitaraua; eta behin egitaraua eginda ere, hura aurkezteko egindako hitzaurreak erakusten du zenbateko errespetua dioten herri horretako ordezkariak "tokikoari". Gezur bat mila aldiz errepikatuta ere, ez da egia bihurtzen.

Argi dago ordezkari horientzat folklorea dela tokiko kulturak izan behar duen lekua eta horrela jarraituz gero, behin betiko lortuko dute globala tokikoaren gaineratik jartzea.



Angel Sagues antzerkigilea, lehenengo planoan, Irurtzungo antzerki tailerrarekin. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Angel Sagues antzerkigileak bi hamarkada inguru daramatza Irurtzungo antzerki tailerreko zuzendari eta taularatzen dituzten antzezlanen dramaturgoa izaten. Irurtzungo tailerrekoa ez ezik, antzerki tailer gehiago gidatzen ditu Saguesek. Artikus konpainiaren bidez bost antzerki tailerren arteko topaketak egitea erabaki zuten. "Antzerki tailerretako kideak emanaldi gehiago egiteko gogoz gelditzen ziren. Hasieran Etxaurin topaketa bat egiten genuen". Urte luzez bost herrietan topaketak egiteko lan "handia" egin zuten, eta azkenean aurreko urtean Antzerki tailerren topaketa egitea lortu zuten: "Oso aberasgarria da; elkartzeko dira, elkar ezagutzen dute... Hori da gure lan egiteko modua".

Antzerki tailerren topaketen barruan irailaren 20an, 22an, 27an eta 29an (ostiralak eta igandeak), 19:00etan, lau antzezlan ikusteko aukera izanen da Irurtzungo kultur etxean: *En el parque*, *¡Qué fácil!*, *Faroles del pueblo* eta *Sueño del Valle*, hurrenez hurren. Irunberri, Orkoién, Oltza Zendea eta Etxauriko antzerki tailerrak izanen dira gonbidatuak. Irurtzungo herri horietan izanen da *Un día en el campo* maiatzan mustu zuen ikuskizuna interpretatzen. Antzerki topaketen emanaldiko sarrerak 5 eurotan eros daitezke, Irurtzungo Udaleko webgunean edo kultur etxean.

Antzerkia topagune

Lau herritako antzerki tailerren antzezlanen emanaldiak izanen dira Irurtzungo kultur etxean irailaren 20an, 22an, 27an eta 29an, Artikusek antolatutako Antzerki tailerren topaketan. Angel Sagues antzerkigilea da sustatzaitako bat

"Orain iraila iristen dela tailer bakoitzean pentsatzen hasten naiz, aurreko urteko antzezlanaren gaia begiratzen dut eta aurtengoarenean pentsatzen hasten naiz. Lehenengo ideiak ateratzen dira, baina taileraren lehenengo egunera iristean, lehenengo topaketa horretan, haiekin elkartu eta hor ateratzen zait benetako ideia". Saguesek idazten ditu antzerki tailerretako antzezlan gehienak eta taldekideak "inspirazio nagusia" direla esan du.

Tailerrean parte hartzen duen jendearen arabera eta haien

"ANTZERKI TOPAKETAK OSO ABERASGARRIAK DIRA; ELKAR EZAGUTZEN DUTE..."

ezaugarriak ere kontuan hartu behar direla esan du antzerkigileak: "Tailer bakoitzean hamabost eta 30 pertsona inguru daude; 8 urtetatik jubilatuetara. Horrek guztiak sortzen duen lana baldintzatzen du". Tailer bakoitza mundu bat da. "Herrien baldintza sozialak, baita ekonomikoak ere, desberdinak dira. Herri batzuetan zenbait herritako jendea doa, Irurtzunen esaterako Iruñeko jendea ere badago. Herri bakoitza abentura bat da".

Ogibidea

Sagues duela lau hamarkada hasi zen antzerkiaren munduan, esperientzia hori ere gradu bat da antzezlanak sortzeko orduan eta tailerrak gidatzeko orduan. "Duela 40 urte hasi nintzen antzerkian, eta horrek asko laguntzen du sortzeko orduan ere".

Hala ere, aitortu duenez, askotan ez daki nola egiten duen urtero lau antzezlan desberdin sortzeko, "aurrera egiten dut, tokia eta jendea begiratu, inspirazioa hartu, eta sortu". Urtetik urtera lan berri bat sortu behar du.

Antzerkiak eszenaratzea "beste mundu bat dela" esan du Saguesek. Kontuan hartu behar dira herrietako emanaldiak egiteko baldintzak: "Irurtzunek badu areto bat eta ikuskizuna horren gainean sortu behar dut. Baina, adibidez, Irunberri zinema areto zahar batean egiten da, oso handia da, eta baliabide tekniko-

"ANTZERKIA EGITEN DUT BIZI NAIZEN BEZALA; NIK USTE HORI DELA SEKRETUA"

rik gabekoa. Oltzan kale antzerkia egin behar dut beti". Baliabide teknikoak eta tokioak hartu behar ditu antzerkiak sortzeko orduan, "eta ez dute bata bestearekin zerikusirik". Antzerki tailerren topaketei esker, tailer bakoitzeko kideak baldintza horietara egokitu behar dira. "Esperientzia politaren zatietako bat da. Ikasi behar dute beste modu batzuetara komunikatzen, beste egoera batzuetan, beste publiko batendako.... Askotan esaten dute: 'Jendea gu ikustera dator eta ondo pasatzen du ezagutzen gaituztelako. Topaketetan ikusten dutena da ez dela lekuaren arabekoa; egiten duzunak funtzionatzen badu, funtzionatuko du Irurtzunen, Irunberri edo Orkoiénen. Hori ere polita da".

Irurtzungo antzerki tailerreko kideek Saguesen lana goraiatu zuten. Hari esker asko ikasten direla esan zuten. "Lan hau nire bizimodua da. Bizi naiz antzerkia egiten dudun bezala, eta imajinatzen dut hortik doala gauza. Niretako filosofia bat da; besteekiko irekia izatea, entzutea, ikustea eta horrekin lan egitea, emozioak, sentimenduak eta bakoitzaren baldintzekin". Antzerki taldeko kide bakoitzari "denbora eta arreta" eskaintzea eta hortik munduak eta istorioak "asmatzen jolastea" da haren sekretua: "Gauza marabilloak ateratzen dira, betiere gizakia-ekin zerikusia dutenak".

Antzerki topaketa

19:00etan, Irurtzungo kultur etxean, bakoitzak 5 euro.

'En el parque' antzezlan

• Irailak 20 ostirala.

'¡Qué fácil!' antzezlan

• Irailak 22 igandea.

'Faroles del pueblo' antzezlan

• Irailak 27 ostirala.

'Sueño del Valle' antzezlan

• Irailak 29 igandea.

"Euskaltegian giro ona eta talde jatorra dago"

Mikel Zelaia eta Juan Kruz Bengoetxea 'Piloto' altsasuarrak euskara ikasleak dira Altsasuko AEKren Sakanako Itsasi euskaltegian. Bost urte inguru daramatzate, eta euskaraz hitz egitearen helburua "pixkanaka" betetzen ari dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Noiz hasi zineten euskara ikasten?

Piloto. Ni duela 40 urte inguru hasi nintzen, gero denbora asko utzi nuen eta 2006an hasi nintzen berriro. Hurrengo urtean ez nintzen etorri. 2020an berriro hasi nintzen eta jarraitu dut.

Mikel. Nik soldaduska bukatu nuenean, hemen Altsasun AEKn hasi nintzen, Sagrario Alemanekin, urte bat edo. Gero Iruñean ikastaro bat egin nuen. Irakasle langabeak ziren eta maila handia eta azkarra zen, eta utzi nuen. Orain jubilatu eta gero hasi naiz. Bosgarren urtea izango da hau.

2 Zergatik?

P. Aurten arrazoi handia dut semea eta bikotekidea gurasoak izango direlako eta ni aitona. Nik beti pentsatu dut euskara gurea dela, baina ez dakit euskaraz. Iñigo Aritza ikastolako presidente izan nintzen hamar urtez, orduan, kontraesan handiak nituen. Jubilatuta nago, eta orain ez dago aitzakirik.

M. Nik euskaraz hitz egin nahi dut. Etxean emazteak eta semeak hitz egiten dute euskaraz, baina nik ez. Hori nahi dut, hitz egitea. Baina ulertzea asko kostatzen zait...

3 Eta zer moduz doaz ikasketak?

P. Lehenengo urtea, gaizki. Baina nire buruari esan nion: aurrera. Gure taldea jatorra da. Giro ona dago. Nik uste nuen gogoarengatik, ondo ikasiko nuela, baina pixkanaka-pixkanaka; irakurri, hitz egin... Eta orain lasai nago. Helburua, momentuz, ez da perfektu hitz egitea. Ohiturak aldatu nahi ditut. Nire bikotekidea Urdiaingoa da eta denak euskaraz hitz egiten dute eta nik erdaraz, eta denak erdarara pasatzen dira. Ezin da izan.



Mikel Zelaia eta Juan Kruz Bengoetxea 'Piloto' euskara ikasleak euskaltegian.

Orain ez nago hain galduta. Zerbait ulertzen dut, erdia asmatuko dut, baina ongi.

M. Nik uste dut lehenengo kurtsuan asko ikasi nuela, eta kontent, baina gero... Badakizkit gauzak, baina burua beteta... lehenaldia, orainaldia, ez dakit zer... Ez dakit zenbat urte beharko ditudan euskara ikasteko. Pixkanaka-pixkanaka.

4 Nolakoak dira klaseak?

M. Giroa oso ona da. Jendea jatorra da eta denak, gutxi gorabehera, adinekoak gara. Irakaslea AEK-ko hoberena da. Oso inplikaturik dago.

5 Zer egiten duzue?

M. Ariketak, filmak euskaraz, jokoak, ondoak hartzera joaten gara... Gauza desberdinak. Giro oso ona dago AEKn.

P. Bi astero hamaiketako oso onak ekartzen ditugu. Mikel sukaldari oso ona da. Txangoak egiten ditugu ere...

6 Azterketak edo probak egiten dituzue?

M. Bai, baina nik esan nuen nire bizitzan azterketa asko egin dudala, eta orain ez dut gehiago egin nahi. Baina Nafarroako

Gobernuaren diagnostikoak egin behar ditugu.

P. Urtero ikusteko nola goazen.

7 Euskara ez ikasteko aitzakietako bat izaten da zaila dela. Zer diozue?

M. Posible da ikastea? Bai. Zaila da? Ere bai. Etxean pixka bat gehiago ikasi behar dugu ere. Hemen hiru egun astean egiten dugu, baina asmoa etxean pixka bat ikastea izan behar da ere.

P. Eta gero Altsasun, kalean, oso zaila da. Gure kuadrillan pixka bat, igual %80k egiten dute euskaraz.

8 Beraz, ahal duzuen euskaraz egiten duzue, ezta?

P. Bai... Gauza da gure lagun taldean gaiak... eztabaida handiak

direla eta dena ematen duzu... Eta euskaraz ezin dugu oraindik dena eman.

9 Dirulaguntzak eskatzeko aukera dago. Eskatzen dituzue? Bai.

10 AEKn euskara ikastearen alde onak eta txarrak.

M. Giro oso ona da eta euskaraz ikasteko leku ona da. Txarrak...
P. Esfortzua... Baina giroa oso ona da.

11 Zer egin duzue euskaltegian izena emateko?

M. Urte batetik bestera aurrematrikulatzen gara. Bestela, euskaltegira etorri edo 948 468 258 telefonora deitu edo sakana@ae.k.eus epostara mezua bidali.

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus